

Etxepare Euskal Institutuaren berdintasuneko diagnostikoa eta Berdintasunerako I. Plana (2019-2022)

2019ko martxoa



elhuyar
Aholkularitza




1. Sarrera	3
1.1. Etxepare Euskal Institutuari buruz.....	3
1.2. Berdintasun-diagnostikoa eta -plana zer diren.....	4
1.3. Arau-esparrua	6
2. Prozesuaren azalpena	10
2.1. Etxepareren dokumentazioaren azterketa	10
2.2. Etxepareren jardueraren inguruko datuen ustiaketa.....	10
2.3. Sakoneko elkarriketak.....	11
2.4. Berdintasunerako Plana diseinatzeko egiturak.....	12
3. Etxepareren diagnostikoa.....	14
3.1. Berdintasunarekiko konpromisoa eta sentsibiltatea.....	14
3.2. Berdintasuneko ibilbidea eta bitartekoak.....	14
3.3. Erabakigune nagusiak.....	15
3.4. Egitasmo estrategikoak.....	17
3.5. Koordinazioa eta elkarlana.....	18
3.6. Etxepareren jarduera kultur eremuan, diziplinaz diziplina.....	19
3.7. Etxepareren jarduera euskararen eremuan: unibertsitate-sarea	40
3.8. Etxepareren kanpo-komunikazioa.....	51
3.9. Erakunde barrura begira.....	55
4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak	57
5. Etxepareren Berdintasunerako I. Plana	69
5.1. Sarrera.....	69
5.2. EAEko Berdintasunerako VII. Plana	69
5.3. Etxepareren Berdintasunerako I. Plana.....	71
6. Plana garatzeko egiturak eta baliabideak	xx
7. Planaren segimendua eta ebaluazioa.....	xx



1.1. Etxepare Euskal Institutuari buruz

Etxepare Euskal Institutua **erakunde gaztea** da. 2010ean sortu zen misio batekin, hots, euskara eta euskal kultura munduan hedatzea. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailari lotua, **zuzenbide pribatuko erakunde publikoa** da.

Euskal kulturaren diplomaziaren burua da. Euskararen eta euskal kulturaren inguruko ezagutza eta ikerketa nazioartean bultzatzea helburu duten programak lantzen ditu, euskal sortzaileen eta haien lanen nazioartekotzea sustatzen du eta beste hizkuntza eta komunitateekin elkarguneak sortzeari bide ematen dio. Euskara eta euskal kultura munduan zabaltzea ez ezik, hizkuntzaren eta kulturaren bidez lurraldea prestijiatzea ere bilatzen du, azken finean.





1.2. Berdintasun-diagnostikoa eta -plana zer diren

Egoeraren diagnostikoa

Diagnostikoaren helburua da jakitea zein den erakunde bateko emakumeen eta gizonen egoera berdintasunari dagokionez edo erakundearen jarduerak zer nolako inpaktua duen emakumeen eta gizonengan, hobetzeko aukerak detektatzeko eta berdintasunaren aldeko esku-hartze global bat diseinatzeko. Etxepare Euskal Institutua erakunde txikia da, baina bere jardueraren inpaktua garrantzitsua da. Hori dela eta, erakunde barrura baino gehiago begiratu dugu bere jarduerara eta, diagnostikoaren fasean, bere jarduera guztia aztertu dugu genero-ikuspegitik.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana

Erakundean eta erakundearen jardueraren bidez emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboa lortzeko neurriak zehazten dituen dokumentua da. Ezinbestekoa da bi alderdi hauek kontuan izatea:

- Dokumentu operatiboa da, hau da, ekintza zehatzak egitera bideratua; ekintza horiek behar bezala ebaluatu behar dira, berdintasuna hobetzeko helburua betetzen ari dela ziurtatzeko.
- Dokumentu bizia da, eta irautekoa. Horrek esan nahi du erakundeak beti eduki behar duela indarrean berdintasun-plan bat. Ez da tarteka egin behar den zerbait. Egoeraren bilakaeraren ondorioz, beharrezkoa izango da aldizka berdintasun-plana berritzea, plan estrategikoekin egiten den bezala.

Berdintasunerako Planen estrategia nagusia genero-ikuspegia txertatzean datza. Genero-ikuspegia aplikatzeak zera esan nahi du, plangintza-, garapen- eta ebaluazio-fase guztietan, emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, beharrak eta nahiak sistematikoki aintzat hartzea, betiere desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna erakundearen politika eta jarduera guztietan sustatzeko helburu eta neurri espezifikoak txertatuz. Errealitatea genero-ikuspegitik aztertzeak hau dakar berekin:


- Emakumeen eta gizonen erlazioak aztertzerakoan egoten diren joera matxistak plazaratzea.



1. Sarrera

- Emakume eta gizonen desberdinkerien atzean dauden egitura-faktoreak identifikatzea, eta desberdinkeria horiek eragiten dituzten arrazoiak antzematea.
- Genero-erlazioak birdefinitzea, emakumeen errealitatea, beharrak eta interesak kontuan hartuz eta emakumeak gizarteari egiten dioten ekarpenari balio handiagoa emanez.

Berdintasunerako Planak lantzeko orduan, alderdi horiek guztiak aztertzen dira aintzat. Jarraian, Berdintasunerako Plana egiteko egin beharreko urratsak jaso ditugu:





1.3. Arau-esparrua

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak hasierako

adierazpenean jasotzen duen moduan, Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek:

“printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”.



Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluaekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko helburua.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikulua, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen du. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2. artikuluan hau adierazten da: herri-aginteei pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzko 2/1998 Legea onartu zuen 1998ko otsailaren 5ean. Lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultzatzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.



1. Sarrera

2/1998 Legea garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak, Emakunderen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen **berdintasunerako zazpi plan** onetsi ditu. Plan horietan EAEko herri-administrazioen esku-hartzearen oinarritzko gidalerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Hain zuzen, EAEko Berdintasunerako Legeak legegintzaldi bakoitzean Berdintasunerako Plan bat landu eta onartzera behartzen du Eusko Jaurlaritza, gainerako herri-administrazioek eta hauen menpekoek Berdintasunerako Planak gara ditzaten Jaurlaritzak onartutako legegintzaldiko Berdintasunerako Plana erreferentziazat hartuta.

vii Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. PLANA

LABURPENA





2. Prozesuaren azalpena

Atal honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoeraren inguruko diagnostikoa eta Berdintasunerako Plana lantzeko egin ditugun urratsak jaso ditugu.

Lehenik eta behin, diagnostikoa osatzeko, informazio-iturri hauetara jo dugu: entitatearen dokumentazioa aztertu eta datuak bildu ditugu, langile guztiei zuzendutako inkesta bat egin dugu, elkarrizketak egin ditugu, tailerra ezagutu dugu, eta, azkenik, informazio hori guztia kontrastatu eta osatu dugu prozesu honetan eratu den Berdintasunerako Batzordearekin.

2.1. Etxepareren dokumentazioaren azterketa

Berdintasunerako diagnostikoa egiteko, dokumentu hauek aztertu ditugu:

- Etxepareren Plan Estrategikoa 2017-2020
- Etxepareren jardueraren urteko memoriak 2010-2015 eta 2017
- Irudi korporatiboaren eskuliburua
- Basque-markaren estrategiaren zirriborroa
- Dirulaguntzen oinarriak eta balorazio-irizpideak
- Sarien oinarriak, balorazio-irizpideak eta epaimahaiak osatzeko irizpideak
- 12 sektoreetako katalogoak
- Azoketako katalogoak
- Creadis 3 egitasmoaren inguruko dokumentazioa
- Atzerriko unibertsitateetarako irakurleak hautatzeko deialdia (2018)

2.2. Etxepareren jardueraren inguruko datuen ustiaketa

Etxeparek batez ere kulturaren eremuan banatzen dituen dirulaguntzen emaitza bildu eta aztertu dugu diziplinaz diziplina:

- Literatura eta itzulpengintza
- Arte eszenikoak (antzerkia eta dantza)
- Zinea eta ikus-entzunezkoak
- Musika
- Arte plastikoak
- Beste kultur jarduera batzuk



2. Prozesuaren azalpena

Eremu horietako programazioa ere aztertu dugu, bai Etxeparek sustatu edo lankidetzen egiten dituenak, bai Etxeparek babesten dituenak.

Bestetik, Etxeparek euskararen eremuan garatzen duen jarduera aztertu dugu, besteak beste, unibertsitate-sareetako irakurleak, ikasleak, Etxeparek eskaintzen duen trebakuntza eta unibertsitateetako katedrak.

2.3. Sakoneko elkarrizketak

Dokumentazioa aztertu eta datuak bildu ondoren, jasotako informazioan sakontzeko bost elkarrizketa egin ditugu. Hauek izan dira elkarrizketatu ditugun pertsonak:

- **Irene Larraza Aizpurua**, Etxepareko Zuzendari Orokorra
- **Imanol Otaegi Mitxelena**, Euskal Kultura Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria
- **Garbiñe Iztueta Goizueta**, Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria
- **Mikel Lasa**, Marka eta Komunikazioko arduraduna
- **Alex Aginagalde**, Kulturako teknikaria eta langileen ordezkaria





2. Prozesuaren azalpena

2.4. Berdintasunerako Plana diseinatzeko egiturak

Bi egitura sortu ditugu prozesua bideratzeko: Talde Eragilea eta Berdintasun Batzordea.

TALDE ERAGILEA

PARTAIDEAK

- Etxepare Euskal Institutuko proiektu-arduraduna eta Euskal Kulturaren Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria: Imanol Otaegi
- Lehenengo bileran Irene Larraza Zuzendari Orokorrak ere parte hartu du eta azkenengoan Garbiñe Iztueta, Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendariak.
- Elhuyar Aholkularitzako teknikaria: Lur Etxeberria

FUNTZIOAK

- Egitasmoa bideratzeko behar den informazioa jasotzea eta trukatzeta.
- Barne-komunikazioa diseinatzea eta bideratzea.
- Egitasmoaren ekintzak koordinatzea eta bideratzea.
- Egitasmoari segimendua egitea eta sor daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak bilatzea.

FUNTZIONAMENDUA

- Proiektuak iraun duen epean **5 bilera** egin ditu.




2. Prozesuaren azalpena

Bestetik, Berdintasun Batzordea sortu da prozesuaren edukiak lantzeko eta adosteko. Aniztasuna izan da batzordea osatzeko irizpide nagusia, hau da, erakundeko ikuspegi ezberdinak bilduko dituen taldea sortu nahi izan dugu. Hauek dira **Berdintasun Batzordean parte hartu duten kideak**:

- **Irene Larraza.** Etxepareko Zuzendari Orokorra.
- **Imanol Otaegi.** Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria eta egitasmoaren arduraduna.
- **Garbiñe Iztueta.** Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria.
- **Alex Aginagalde.** Kultura-teknikaria eta langileen ordezkaria.
- **Kizkitza Galartza.** Euskara- eta Kultura-teknikaria.
- **Mikel Lasa.** Marka eta Komunikazioko arduraduna.
- **Elena Arrieta.** Idazkari teknikoa.

Berdintasun Batzordeak **bi lan-saio** egin ditu, gai hauek lantzeko:



1. Saioa: diagnostikoaren zirriborroa aurkeztu, kontrastatu eta osatu; eta lehentasunezko lan-ildoak identifikatu.

2. Saioa: Berdintasunerako Planaren zirriborroa ezagutu, kontrastatu eta osatu.



2. Prozesuaren azalpena

13.

Berdintasun Batzordeko kideek gaiarekiko sentsibiltatea eta interesa adierazi dute, aktiboki parte hartu dute eta Berdintasunerako Plana ulertzeko moduan eta lehenetasunetan bat etorri dira.

Hau da Berdintasun Batzordeko kideek bi saio horien inguruan egin duten **balorazioa**:

Diagnostikoa ezagutu, osatu eta erronkak identifikatzeko **1. lan-saioa**:

- Azalpen garbiko/argiko saioa.
- Aurre-diagnosia: luzea, baina beharrezkoa. Oro har positiboa.
- Produktiboa eta aberasgarria. Positiboa.
- Gure sentsibiltatea inguruan kutsatu nahi nuke!
- Argazki zehatza eremu garrantzitsuetan. Gure sistematizazio ezaz areago ohartu naiz.
- Zehatza eta praktikoa gure egoeraren berri izateko.
- Aurre-diagnostikoak ekarri dizkigun datuak interesgarriak eta esanguratsuak iruditu zaizkit; diagnostikoaren ondorioz taldeak ateratako ondorioak zentzuzkoak; uste dut plana adostea eta aplikatzea egingarria dela, eraginkorrak izan gaitezkeela zeregin horretan.

2. lan-saioan saioa bera baloratu genuen, batetik:

GAURKO LAN-SAIOA	1	2	3	4	5
METODOLOGIA				XXXXX	XX
PARTE-HARTZEA				XXXX	XXX
BALIAGARRITASUNA				XXXX	XXX
ORO HAR				XXXXX	XX

Eta, bestetik, emaitza bera (Plana) baloratu genuen:

EMAITZA (PLANA)	1	2	3	4	5
EGOKIA DA?				XXXXX	XX
ZURE ESPEKTATIBAK BETE DITU?			X	XXX	XXX
ORO HAR			X	XXX	XXX



3. Etxepareren diagnostikoa

3.1. Berdintasunarekiko konpromisoa eta sentsibiltatea

Zuzendaritzak berdintasuneko diagnostikoa eta plana egiteko eta garatzeko konpromisoa hartu du eta **berdintasunarekiko sentsibiltate eta kontzientzia-maila handia** dauka. Horren erakusgarri da, batetik, orain arteko **jardueran genero-ikuspegia txertatzeko ahalegina** eta, bestetik, **Zuzendaritza osoaren inplikazioa** Berdintasunerako Planaren lanketan. Zuzendaritzaz gain, **langileen artean ere berdintasunarekiko sentsibiltatea** nabarmena da. Nabarmentzekoa da beraien jarduera genero-ikuspegitik aztertzeke egindako lana eta parte hartzea.

Berdintasunerako sentsibiltateak bultzatuta, aipatu bezala, beren **jardueran genero-ikuspegia txertatzen saiatzen** dira, nahiz eta kontzienteki adosteke eta sistematizatzeko duten eremu bat izan.

3.2. Berdintasuneko ibilbidea eta bitartekoak

Erakundeak orain arte **ez du bitartekorik** izan berdintasunaren gaia lantzeko, nahiz eta aspalditik dakarren gaiari heltzeko nahia. Nahi horren adierazgarri da **2014an Emakundek gidatutako Erakunde Publikoen Berdintasunerako Sareko partaide** bihurtu izana. Bitartekorik ezak, ordea, sarean behar bezala parte hartzea ezinezko bihurtu du.

Horrenbestez, **berdintasuneko diagnostiko hau da Etxeparek egiten duen lehena**, horretarako bitartekoz hornituta.

Trebakuntza:

Etxepare osatzen duten pertsonak **ez dute orain arte inoiz berdintasunari buruzko trebakuntzarik jaso**.



3. Etxepareren diagnostikoa

Lagungarri izan daitezkeen prozesuak:

2017an Etxeparek **euskarari lehentasunezko lekua emateko** gogoeta bat egin zuen eta, ondorioz, **dirulaguntzetan** euskararen presentzia bermatzeko neurriak ezarri zituen. Zehazki, balorazio-irizpideetan euskararen pisu erlatiboa handitu egin zuen, helburu nagusi batekin: dirulaguntza euskarazko proiektu gehienek jasotzea. **Ekintza positiboko neurri bat** izan da, euskarak hizkuntza hegemoniko eta handi baten ondoan daukan gutxiagotutako lekua orekatzeko. Ordudanik, diru-laguntzetan proiektuaren hizkuntza aintzat hartzeaz gain, **euskarazko proiektuen estaldura-maila neurtu egiten da** berariazko adierazleak sortuta, eta adierazleok **urteko memorian** ere jasotzen dira. Tradizionalki maskulinizatutako diziplinatan emakumeen partaidetza sustatu nahi bada, **euskararekin egindako ibilbidea baliagarria** izan daiteke berdintasunerako ere.

Bigarrenik eta azkenik, **nazioarteko kultur eragile eta erakundeekin programazioak lantzerakoan**, Etxeparek jadanik **emakumeen eta gizonen oreka aintzat hartzeko gomendioa** egin izan du kasu batzuetan, nahiz eta eremu hau sistematizatzeko dagoen. Era berean, nazioarteko programatzaile batzuk emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua beraien programazio-irizpideetan txertatzen dute dagoeneko (beste irizpide batzuekin batera, besteak beste, lurraldetasuna eta inklusibitatea). Horrenbestez, lan-eremu honetan **elkarlan eta konplizitate egokiak sortzeko aukera** egon liteke.

3.3. Erabakigune nagusiak

Etxepare Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailaren menpeko erakundea da eta **hiru erabakigune nagusi** ditu, hala nola **Patronatua, Zuzendaritza Kontseilua eta Zuzendari Orokorra**. Etxeparek ez dauka inolako erabakimenik erabakigune hauen osaeraren inguruan, halere.

Beheko taulan jaso dugu zein den une honetan erabakiguneen osaera, emakumeen eta gizonen partaidetzari dagokionez:



3. Etxepareren diagnostikoa

ERABAKIGUNEAK	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA
	ZKIA.	%	ZKIA.	%	
PATRONATUA	17	% 54,8	14	% 45,2	31
ZUZENDARITZA KONTSEILUA	3	% 42,9	4	% 57,1	7
ZUZENDARI OROKORRA	1	% 100	0	-	1
ZUZENDARITZA TALDEA	2	% 66,6	1	% 33,3	3

Une honetan **organo guztietan emakumeen eta gizonen presentzia nahiko orekatua** da. Ez da berariaz bilatutako eta landutako emaitza bat, halere, eta horrek arrisku bat badu hurrengo legegintzaldian emaitza bestelakoa izan baitaiteke. Izan ere, **ez dago neurri zehatzik** erabakiguneetan partaidetza orekatua bermatzeko.

Etxeparek **hiru Zuzendari Oroker** izan ditu orain arte, **guztiak emakumeak**. Eta erakundearen **zuzendaritza-taldean hiru lagunetik bi emakumeak** dira. Alde horretatik, ardura-postu estrategikoetan emakumeen presentzia handia duen erakundea da.

Patronatuaren burua Lehendakaria da, gizonezkoa; eta Zuzendaritza Kontseiluarena Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, gizonezkoa baita ere.

Taulan jaso ditugun datu orokorrez harago, Patronatuaren osaeran gehiago sakonduz gero, honako hau da Patronatuaren osaera:



3. Etxepareren diagnostikoa

- Berezko kideak (kargu jakinei lotutako pertsonak): Lehendakaria, Jaurlaritzako kargudunak, foru aldundietako kargudunak eta Etxepareko zuzendaria. 11 lagun: 4 gizon (% 36,4) eta 7 emakume (% 63,6).
- Patronatuko kide ez-berezkoak: Euskal letren, filologiaren eta kulturaren ordezkariak. 15 lagun: 6 emakume (% 40) eta 9 gizon (% 60).
- Kulturaren sektore profesionalen ordezkariak, Eusko Legebiltzarrak proposatuta: 5 lagun: 4 emakume (% 80) eta gizon 1 (% 20).

Laburbilduz, Patronatua 31 lagunek osatzen dute, 17 emakumek (% 54,8) eta 14 gizonek (% 45,2). Esan bezala, ordea, erabakiguneen osaera ez dago Etxepareren esku; Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren esku, baizik.

3.4. Egitasmo estrategikoak

Eusko Jaurlaritzaren Kanpo
Harremanetarako Idazkaritzatik
gidatzen da Euskadi atzerrian zabaldu
eta sustatzeko **Basque Country**
2020 estrategia. Estrategia horrek
lau ildo estrategiko ditu, hala nola
kanpo-harremanak, industria,
turismoa eta kultura. Hain zuzen,
kulturaren ardatzaz Etxepare
arduratzen da. Etxepareren gain dago
ildo estrategiko honen diseinua eta
garapena, hortaz.



Kulturaren ildo estrategikoko nazioartekotze-plana Etxeparek marrazten du, kulturaren eta hizkuntzaren bitartez, hizkuntza eta kultura ez ezik, lurraldearen izen eta irudi ona zabaltzeko. Estrategiak munduko lurralde batzuk harremanetarako lehentasunezko



3. Etxepareren diagnostikoa

identifikatzen ditu hainbat arrazoiengatik eta, Etxeparerentzat erreferente izango dira lurralde horiek datozen urteetan. **Basque Countryk lehenesten dituen lurraldeetan kultur estrategia garatzea** da Etxepareren zeregina. **Modu sistematikoan ez bada ere, genero-ikuspegia txertatzen ahalegintzen** da Etxepare zeregin honetan.

2019an “focus country” izango da Eskozia eta 2020an Quebec. Eskozian, zehazki, jaialdi estrategikoak identifikatu dira eta euskal leihoak sortzen ari dira horietan. Paraleloki unibertsitateekin ere lanketa egiten ari dira. Quebec-en, berriz, joan-etorrien bidez osatuko da programazioa: egonaldiak, trukeak... 2020an Euskadi Quebecera eramatea izango da xedea eta 2021ean Quebec Euskadira ekartzea.

Etxeparek, bestetik, esku artean ditu **beste hainbat proiektu** une honetan, nahiz eta **pixkanaka beste esku batzuetara pasatzea aurreikusten** den, Etxepareren misiotik aldentzen diren neurrian. Izan ere, nazioartekotzea termino industrial eta merkantiletan ez da Etxepareren zeregina eta proiektu-mota horiek Kultura sailaren gain geratzea adosten ari dira. Proiektu horien artean daude **Creadis** (kultur sormen-industriei lotutako proiektua, praktika onak sustatzeko) eta **Aquitaine.eus** (mugaz gaindiko lankidetzaproiektua, mugaren bi aldeko kultur eragileen elkarlana eta mugikortasuna sustatzeko).

3.5. Koordinazioa eta elkarlana

Etxepare hamaika erakunde eta eragilerekin aritzen da elkarlanean, baina hauek dira erakunde eta eragile nagusiak:

1. **Kultura eta Hizkuntza Politika saila.** Bere menpeko erakundea da eta harreman estua du. Kultura eta Hizkuntza Politika sailarekin astero elkartzen da Zuzendari Orokorra.
2. **Kanpo Harremanen Idazkaritza.** Basque Country 2020 Estrategiaren kultur ardatza Etxeparek lantzen du eta estrategia guztia koordinatzeko elkarlana estua da.
3. **EUNICEko** (European Union National Institutes for Culture) kide elkartu da Etxepare (Brusela). EUNIC Europako kultur institutuen sarea da. Europar Batasuneko kide aitortua da eta Europako kultur politiken diseinuan zeresana du. EUNICen parte



3. Etxepareren diagnostikoa

hartzeak Europako hiriburuan presentzia ematen dio eta herrialdeekin harremana lantzeko aukera.

3.6. Etxepareren jarduera kultur eremuan, diziplinaz diziplina

Etxeparek euskal kultura nazioartean zabaltzea sustatzen du diru-laguntzen, sarien eta programazioen bidez. Eremu hauetako lanaren emaitza aztertuko dugu jarraian, diziplinaz diziplina. Hauek dira aztertuko ditugun diziplinak: literatura eta itzulpengintza, arte eszenikoak (dantza eta antzerkia), zinea eta ikus-entzunezkoak, musika, arte plastikoak eta beste kultur jarduera batzuk.

3.6.1. Literatura eta itzulpengintza:



Bi dirulaguntza daude diziplina honetan:

a) Literatura-lanen **itzulpenak egiteko dirulaguntza:**

Dirulaguntza honen xedea da itzulpen-jarduera hauek diruz laguntzea:

- Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-obrak edozein hizkuntzatara itzultzea.



3. Etxepareren diagnostikoa

- Euskal Autonomia Erkidegoan erroladatutako idazleek jatorriz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura-obrak euskara ez den beste edozein hizkuntzataraz itzultzea.

Hauek izan dira 2018ko emaitzak:

Literatura-lanen itzulpenak egiteko dirulaguntza 2018								
Dirulaguntza eskatu dutenak			Dirulaguntza eskuratu dutenak			Emakumeen proiektuen estaldura		
Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Eskatu	Lortu	Estaldura
11	9	20	10	5	15	11	10	% 90,9
% 55	% 45	% 100	% 66,6	% 33,3	% 100	-	-	-

Dirulaguntza eskatu duten itzultzaileen artean nabarmentzekoa da **emakumeen eta gizonen oreka**. Lorpen- edo **estaldura-mailak, ordea, oreka hautsi du emakumeen alde**. Emakume itzultzaileen % 90,9ak lortu du dirulaguntza eta gizonen % 55,5ak. **Tradizionalki feminizatutako eremua** da itzultzaileena eta datuok ere hala erakusten dute.

Dirulaguntzaren hartzaileez gain, ordea, badago azter daitekeen beste dimentsio bat, hau da, diru-laguntzen bidez **itzuli diren literatur-lanen jatorrizko egileen sexua**. Beheko taulan ikus daitekeen bezala, datu horrek erakusten digu itzuli **diren lanik gehienak gizonenak** izan direla, nahiz eta **emaitza nahiko orekatua** den (% 40-% 60).

Itzulitako literatu-lanen jatorrizko egileak 2018					
Jatorrizko liburuaren egilea (eskatutakoak)			Jatorrizko liburuaren egilea (lortutakoak)		
Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
6	14	20	6	9	15
% 30	% 70	% 100	% 40	% 60	% 100



3. Etxepareren diagnostikoa

b) Sortzaileentzako bidaia-poltsen dirulaguntza:

Dirulaguntzaren xedea da literatura sektoreko eragileek (**idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta editore**) literatura-alorreko nazioarteko ekitaldietan parte hartzeko dirulaguntzak ematea, horietan libururen bat aurkeztu edo ordezkatu behar dutenean, literatura-sorkuntzaz jardun behar dutenean edo euskal ordezkaritza gisa doazenean.

Dirulaguntza eskatu ahala ematen da, diru-partida agortu arte. Hauek dira 2018ko dirulaguntza deialdiaren emaitzak:

Bidaia-poltsen dirulaguntza 2018					
Dirulaguntza jaso dutenak			Batezbesteko adina		
Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
7	12	19	53	51,6	52
% 36,8	% 63,2	% 100	-	-	-

Itzultzaileei idazleak, ilustratzaileak eta editoreak gehitzen zaizkien dirulaguntza honetan, **gizonen partaidetza emakumeena baino nabarmen handiagoa** da, % 63 eta ia % 37 hurrenez hurren. Datuok ikusita eta literaturaren eremua tradizionaloki maskulinizatutako eremua izan dela kontuan hartuta, **interesgarria izan daiteke eremu honetan emakumeen partaidetza sustatzea**.

Itzulpengintzaren eremuko sari bat sortua du Etxeparek Laboral Kutxarekin elkarlanean: **Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria**





3. Etxepareren diagnostikoa

Sariaren xedea da **jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-obra baten itzulpen-lan bat** saritzea. Sariak bi dimentsio hartzen ditu aintzat: itzulpenaren kalitatea, batetik, eta argitaletxearen sustapen-plangintza, bestetik. Horrenbestez, sariak itzultzailea eta argitaletxea saritzen ditu.

Saridunak aukeratzeko irizpideak dira, beteak beste, itzultzailearen ibilbidea, lanaren kalitatea, argitaletxearen garrantzia, sailaren kalitatea, itzulpenaren promoziorako ekintzak... eta itzulpena zuzenean euskaratik egindakoa izatea (beste hizkuntzarik erabili gabe zubi gisa).

Hauk izan dira azken lau urteotako itzultzaile-sarituak eta jatorrizko lanaren egileak:

	Itzultzailea –saritua		Jatorrizko lanaren egilea	
	emakumea	gizona	emakumea	gizona
2015	0	1	0	1
2016	1	0	0	1
2017	0	1	0	1
2018	1	0	0	1
guztira	2 (% 50)	2 (% 50)	0 (% 0)	4 (%100)

Sarituei dagokienez, **orekatua** izan da emakume eta gizon sarituen banaketa. Oreka hau ez da berariaz bilatu, **ez dago oreka hau bermatzeko neurririk**. Bestetik, **saritutako jatorrizko lanaren egileak kasu guztietan gizonak** izan dira. Diru-laguntzetan ikusten dugun egoeraren antzekoa ikusten dugu hemen ere: **itzultzaileen eremuan emakumeen presentzia nabarmena** da, baina **literatur-eremuan emakume sortzaileen lana gizonen lanaren itzalean** geratzen da oraindik.

Saridunak aukeratzeko irizpideetan jatorrizko lanaren egilea emakumea izatea txertatzea interesgarria izan daiteke. Hau da, itzulpena zuzenean euskaratik egin izana baloratzen den bezala, jatorrizko egilea emakumea izatea ere baloratzea, esaterako.



3. Etxepareren diagnostikoa

Sariaren epaimahaiaren osaerari dagokionez, hau izan da azken lau urteotan **epaimahaiaren osaera**:

Epaimahaiaren osaera: Laboral Kutxako ordezkaria, Etxepareko ordezkaria eta arloko adituak (3 edo 4).			
urtea	emakumea	gizona	guztira
2015	4 (% 80)	1 (% 20)	5
2016	5 (% 83)	1 (% 17)	6
2017	4 (% 66,6)	2 (% 33,3)	6
2018	3 (% 50)	3 (% 50)	6

Emakumeen presentzia gizonena baino nabarmen handiagoa izan da eta azken bi urteetan orekatzera jo du. Ez dago epaimahaia orekatua izateko neurririk aurreikusita.





3. Etxepareren diagnostikoa

Programazio eta ekitaldiei dagokienez, 2017ko datuak aztertu ditugu. Dirulaguntzak eta sariak ez bezala, programa eta ekitaldirik gehienak ez dira iraunkorrak, hau da, aldatu egiten dira urtez urte. Hortaz, 2017ko programak eta hauen emaitzak ezin ditugu orokortu.

Etxeparek sustatutako programazioei dagokienez, hauek dira 2017ko emaitzak:

ETXEPAREK SUSTATUTAKOAK 2017			
Programazioa-ekitaldiak	Parte-hartzaileak		Ekitaldi-kopurua
	emakumeak	gizonak	
Itzultzaile berriak	Itzultzaileen daturik ez	Itzulitako hiru lanak gizonezko batenak	-
Idazleak azoka eta jaialdietan	6 (% 75)	2 (% 25)	8
Itzulpengintza topaketa	5 (% 41,6)	7 (% 58,4)	1
Fete de la BD (Bruselako komiki festibala)	1 (% 50)	1 (% 50)	1
Transpoesie (Brusela)	0 (% 0)	1 (% 100)	1

Orokorrean emakumeen eta gizonen presentzia nahiko orekatua izan zen ekitaldi horietan: itzultzaileen topaketan eta komikiaren jaialdian. Itzultzaileak trebatzeko ekimenean, bestalde, **gizon idazleen lanak itzuli** ziren; orain arte ikusi dugun joeran sakonduz. Nabarmentzekoa da **orain arte literaturaren eremuan ikusi dugun emakumeen presentzia urria** (diru-laguntzetan eta itzulitako lanen egiletzan) **aldatu egiten dela Etxeparek sustatutako ekimenen kasuan** idazleek azoka eta jaialdietan izan duten presentziari dagokionez, zortzi ekitalditatik 6tan parte hartu baitute.



3. Etxepareren diagnostikoa

Etxeparek babestutako ekimenei dagokienez, hauek dira 2017an babestutakoak:

ETXEPAREK BABESTUTAKOAK 2017		
Programazioa	Parte-hartzaileak	
	emakumeak	gizonak
ElZIEko bi ordezkari Eslovenian	2	0
Juan Cruz Igerabide Eslovenian	0	1
Kirmen Uribe munduko literatura-egonaldi zaharrenean	0	1
Xabier Montoiaren lan bat Best European Fiction antologian	0	1
Guztira	2	3

Etxeparek berak sustatzen dituen ekimenetan ez bezala, ekimen hauek jadanik itxita iristen zaizkio Etxepareri eta ez du hauen diseinuan esku hartzen.

Emaitzei begiratuta, **joera orokorra nagusitzen** da: **idazle gizonak eta hauen lanak nazioarteratzen lagundu da** ia erabat.





3. Etxepareren diagnostikoa

3.6.2. Arte eszenikoak:



Euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko **dirulaguntza lerro bat** dago, antzezlanak eta dantza-ikuskizunak nazioarteratzen laguntzeko.

2018an **42 antzezlanek** jaso dute dirulaguntza Estatu espainiarrean nahiz nazioartean emanaldiak egiteko. Ez da konpainien osaeraren **daturik jasotzen sexuaren arabera bereizita**, ezta zuzendariaren, gidoigilearen edo ekoizlearen sexuaren inguruko daturik ere. Ondorioz, une honetan ezin dugu dirulaguntza horren hartzaileen inguruko azterketarik egin genero-ikuspegitik.

Dantza-ikuskizunei dagokienez, berriz, 2018an 13 dira dirulaguntza jaso duten taldeak eta, diruz lagundutako proiektuen % 84,6 emakume-taldeei edo talde mistoei dagokie.

Sortzaileen mugikortasunerako dirulaguntzak 2018: dantza					
Dirulaguntza eskatu dutenak			Estaldura-maila		
emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak	emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak
5	10	4	4	7	2
% 26,3	%52,6	% 21	% 80	% 70	% 50



3. Etxepareren diagnostikoa

Dirulaguntzaren balorazio-irizpideak dira, besteak beste, ibilbide profesionala, (kide-kopurua, antzinasuna, atzerriko ekitaldietan ibilbidea...), Etxepareren helburuekin lerratzea-maila (euskararen presentzia...), etab. **Balorazio-irizpideetan ez da kontuan hartzen taldearen osaera sexuari dagokionez.**

2017ko programazioari dagokionez, sexuaren arabera bereizitako datu gehiago beharko genituzke azterketa xehe bat egin ahal izateko. Etxeparek sustatutako programazioan, erakusketa ibiltari bat egin zen 2017an. Etxeparek lankidetzan egindako programazioari dagokionez, datu hauek ditugu (ez dira nahikoak ondorioz atera ahal izateko):

ETXEPAREK LANKIDETZAN 2017			
Programazioa-ekitaldiak	Parte-hartzaileak		Ekitaldi-kopurua
	emakumeak	gizonak	
Centro Dramático Nacional: Los Gondra antzezlana		Zuzendaria gizona	1
Solasaldia: Los Gondra	0	2	
2 dantza-jaialdi	?	?	6 konpainia (sexuaren arabera daturik ez)
dFERIA, 3 ekimen	Emakume-talde 1	2 gizon-talde	



3. Etxepareren diagnostikoa

Azkenik, Etxeparek babestutako programei dagokienez, hauek dira datuak:

ETXEPAREK BABESTUTAKOAK 2017		
Programazioa	Parte-hartzaileak	
	emakumeak	gizonak
Jaialdi batean 3 dantza-konpainia	1 % 33,3	2 % 66,6

3.6.3. Zinea eta ikus-entzunezkoak:



Zinemaldi eta programaziotan parte hartzeko **bidaietarako dirulaguntza lerro bat** dauka Etxeparek. Itzulpen eta literaturaren alorrean bezala, dirulaguntza hau ez da lehiakorra eta eskatu ahala ematen da. 2018ko datuei erreparatuta, **dirulaguntza eskatu eta lortu duten emakumeen eta gizonen kopurua parekidea** izan da. Datuok, ordea, filmaren ordezkari gisa parte hartu duten pertsonei egiten diete erreferentzia eta **ez daukagu sexuaren arabera bereizitako daturik** mundu-mailan zabaltzen diren ikus-entzunezko horien **zuzendariei, gidoiariei edo ekoizleei buruz**.



3. Etxepareren diagnostikoa

Zinemaldi eta programaziotan parte hartzeko bidaia-poltsaren dirulaguntza 2018					
Dirulaguntza eskatu dutenak			Dirulaguntza eskuratu dutenak		
emakumeak	gizonak	guztira	emakumeak	gizonak	guztira
12	9	21	9	8	17
% 57,1	% 42,9	% 100	% 53	% 47	% 100

*Dirulaguntza eskatu duten ordezkarien datuak dira.

Diziplina honetan, beste batzuetan bezala, azoka profesionaletan parte hartzeko dirulaguntza bat ere badago. Dirulaguntza honi dagokionez, ez dugu sexuaren araberako daturik lortu. Halere, etorkizunean lan-ildo eta dirulaguntza hau Kultura sailak bere gain hartzea aurreikusten denez, eremu hau alde batera utzi dugu diagnostikoan.

2017ko programazioari dagokionez, Etxeparek **Kimuak** film labur garrantzitsuenen bilduma egiten eta nazioarteratzen parte hartzen du Euskadiko Filmetegiarekin elkarlanean. Emakumeek eginiko filmen gutxieneko presentzia bermatzen saiatzen da Etxepare (**2018ko bilduma parekidea** izan da), baina **ez dago irizpiderik** edo horretarako jarraibiderik landuta. Pertsonen sentsibilitatearen gain geratzen da gaia. Bestetik, eremu honetan **askoz gutxiago dira emakume sortzaileak** eta **Etxeparek ez du horretan eragiteko eskumenik**. Egoera hau are okerragoa da film luzeen kasuan. Euskaraz eta Euskal Herrian egiten diren filmak gutxi dira eta horretan ez du zeresanik Etxeparek. Kultura sailak bai, ordea; Jaurilaritzak diruz lagundutako filmak baitira argia ikusiko dutenak. Emakumeek zuzendutako, ekoiztutako edo gidoigile emakumeen filmak sustatu nahi badira, Kultura saila da horretan eragiteko ahalmena duena.



3. Etxepareren diagnostikoa

ETXEPAREK SUSTATUTAKOAK 2017		
Programazioa	Parte-hartzaileak	
	emakumeak	gizonak
Kimuak: talentu berriak nazioartekotzea (film labur garrantzitsuenak hautatu eta nazioarteko jaialdi nagusietara bidali, Euskadiko Filmategiarekin)	2018koa parekidea izan da. • Azken 20 urteetako atzera begirakoan apenas zegoen emakumeen lanik eta eztabaita sortu zen.	

ETXEPAREK BABESTUTAKOAK 2017		
Programazioa	Parte-hartzaileak	
	emakumeak	gizonak
Nazioarteko zinemaldietan presentzia (4 zinemaldi)	8 zuzendari % 24,2	25 zuzendari % 75,8

Lehen aipatu dugun moduan, **zinemaren eta ikus-entzunezkoen esparruan**, historikoki **oso txikia izan da emakume zuzendarien, ekoizleen eta gidoigileen presentzia**. Ondorioz, Kimuak-en atzera begirako bilduma egiterakoan, emakume sortzaileen presentzia oso txikia izan zen. Era berean, gaur egun esparru honetan gizonak nagusitzen dira eta Etxeparek babestutako ekimenetan **emakumeen parte-hartzea ez da partaideen laurdenera iristen**.



3. Etxepareren diagnostikoa

31.

3.6.4. Musika:



Bi dirulaguntza mota ditu Etxeparek diziplina honetan:

- a) Musika-birak egiteko dirulaguntza
- b) Kontzertu bereziak egiteko dirulaguntza (5 kontzertu baino gutxiago direnean)

Musika-birak egiteko dirulaguntzari dagokionez, **2018an dirulaguntza eskatu zuten talde gehienak gizonez soilik osatutako musika-taldeak** izan ziren, baita eskuratu zutenak ere (**hamarretik ia sei**). Emakumez soilik osatutako musika-taldeen presentzia oso txikia da dirulaguntzetan eta handixeagoa da talde mistoen presentzia, nahiz eta gizonez soilik osatutako taldeak baino kopuru nabarmen txikiagoan. Nabarmentzekoa da **emakume-taldeen estaldura-maila txikia (% 50)**, talde mistoen eta gizonezkoen taldeen estaldura-mailarekin alderatuta.

Musika-birak egiteko dirulaguntzak 2018

Dirulaguntza eskatu dutenak			Dirulaguntza eskuratu dutenak			Estaldura-maila		
emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak	emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak	emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak
2	18	24	1	13	19	1	13	19
% 4,5	% 40,9	% 54,5	% 3	% 39,4	% 57,6	% 50	% 72	% 70,6



3. Etxepareren diagnostikoa

Kontzertu bereziak egiteko dirulaguntzari dagokionez, berriz, **dirulaguntza honetan talde mistoek gizonezkoen taldeek baino presentzia handiagoa** izan dute, eta **emakume-taldeen eta talde mistoen lorpen-maila oso altua** izan da, % 100 kasu bietan.

Kontzertu bereziak egiteko dirulaguntzak 2018								
Dirulaguntza eskatu dutenak			Dirulaguntza eskuratu dutenak			Estaldura-maila		
emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak	emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak	emakume-taldeak	talde mistoak	gizon-taldeak
1 % 10	5 % 50	4 % 40	1 % 11,1	5 % 55,5	3 % 33,3	1 % 100	5 % 100	3 % 75

Dirulaguntzen azterketa honek agerian jartzen du nahikoa ebidentea dena, hau da, musikaren eremua oso maskulinizatua dela gaur-gaurkoz; eta ez da Etxepare musikaren eremuan emakume sortzaileen lana sustatzeko politikak egin ditzakeen erakundea. Etxeparek berma dezake, ordea, emakumeen partaidetza bermatzen duten musika-taldeei dirulaguntza ahalbidetzea, ahal den neurrian. Gaur egun, **dirulaguntzen balorazio-irizpideetan ez da aintzat hartzen taldeen osaera sexuaren arabera eta ez da baloratzen emakumeek gutxieneko presentzia izatea**. Lehenago aurkeztu ditugun arte eszenikoetako dirulaguntzaren balorazio-irizpide berberak ditu eta, besteak beste, alderdi hauek baloratzen dira: ibilbide profesionala (kide-kopurua, antzinasuna, atzerriko ekitaldietan ibilbidea...) eta Etxepareren helburuekin lerratzea-maila (euskararen presentzia...).

Musikaren eremuan, **bi sari** babesten ditu Etxeparek: MIN sarietako Euskarazko Album Onenaren Saria eta Musika Bulegoa Sarietako Etxepare Euskal Institutua Saria.

Lehenengo sariak **euskaraz egindako musikari Estatu-mailan ikusgarritasuna** ematea du xede. UFI (Unión Fonográfica Independiente) da sariaren antolatzailea eta Etxepareekin



3. Etxepareren diagnostikoa

duen hitzarmenean genero-berdintasuna bultzatzen duen erakundea dela aipatzen du. Ez dakigu, ordea, berdintasuna bultzatzeko neurri zehatzik ezartzen duen sarietan, esaterako. Etxeparek babesten duen sariaren kasuan, behintzat, **ez dago emakume musikagileen lana ikusarazteko eta aitortzeko irizpiderik**. Eta ez da inoiz gogoetarik egin sariok emakume musikagileen lana ikusarazteko eta aitortzeko joka dezaketen paperaren inguruan. **Azken hiru urteetatik bitan gizon-taldeek jaso dute saria** eta horietako batean emakume eta gizon banaz osatutako musika-taldeak. Hortaz, sari honen bidez, gizon-taldeek lana ikusarazi eta aitortu izan da batez ere.

Sarirako hautagaitzak autohautagaitza bidez jaso ohi dira. Interesgarria litzateke aztertzea zer neurritan aurkezten duten beren burua emakumeek eta gizonak, baina ez dugu datu hori. Ondoren, edonork eman dezake botoa webgunean bidez. Eta, azkenik, epaimahaiak hartzen du erabakia.

MIN sarietarako Euskarazko Album Onenaren Saria			
Sarituenak		emakumeak	gizonak
2016	Javier Muguruza		x
2017	Niña Coyote eta Chico Tornado	x	x
2018	Delorean		x

Musika Bulegoa Sarietako Etxepare Euskal Institutua Sariak **azken 3 urtetan euskal musika nazioartean zabaltzeko egindako lana aitortzea** du xede. Euskaraz egindako musika eta hizkuntzarik erabiltzen ez dutenak hartzen dira aintzat. Etxeparek aurkezten ditu hautagaitzak. Zehazki, bost hautagai aurkezten dizkio epaimahaiari. Epaimahaia diziplinari lotutako 8 pertsonak osatzen dute (ez dugu sexuaren arabera osaera ezagutzerik izan) eta Etxeparek ordezkari bat gehitzen du.



3. Etxepareren diagnostikoa

Aurreko sariak bezala, ez dago irizpiderik emakume musikagileen lana aitortzeko. **Saria banatu den bi urteetan, gizonen osatutako musika-taldeak jaso dute saria.**

Musika Bulegoa Sarietako EEI Saria			
Sariak		emakumeak	gizonak
2017	Berri Txarrak		x
2018	Kalakan		x

2017ko programazioari dagokionez, **Etxeparek lankidetzan antolatu dituen ekimenetan gizonen osatutako musika-taldeak izan dute tokirik gehien:** jaialdi eta programazioetan % 59 eta azoka profesionaletako programazioetan % 86. Programazioak zehazterakoan, **ez dago berdintasun-irizpiderik ezarrita** eta norberaren sentsibilitatearen gain geratzen da.

ETXEPAREK LANKIDETZAN			
Programazioa	Parte-hartzaileak		
	Emakume-taldeak	Talde mistoak	Gizon-taldeak
Jaialdi eta programazioetan presentzia (10)	3 % 10	9 % 31	17 % 59
Azoka profesionaletako programazioetan	0 % 0	1 % 14	6 % 86



3. Etxepareren diagnostikoa

Etxeparek babestutako programazioetan, **norabide berean** doaz emaitzak. Gizon-taldean protagonismoa nagusitzen da; eta laurdena dira talde mistoak edo emakume-taldeak.


ETXEPAREK BABESTUTA			
Programazioa	Parte-hartzaileak		
	Emakume-taldeak	Talde mistoak	Gizon-taldeak
Musikagileak elkartarekin hitzarmena: hitzaldiak, mintegiak eta kontzertuak	1 % 12,5	1 % 12,5	6 % 75
Argitalpena (Abesbatzen elkartek): abesbatza mistorako 50 lan		x	



3. Etxepareren diagnostikoa

36.

3.6.5. Arte plastikoak:



Artista eta komisarioen mugikortasunerako dirulaguntzak ematen ditu Etxeparek. **Diziplina honetan emakume eta gizonen partaidetza parekidea da dirulaguntza eskatzerakoan.** Dirulaguntza lortu dutenei erreparatuz gero, berriz, emakumeak dira % 62a eta talde mistoak % 4a. Izan ere, proiektu mistoen eta emakumeen proiektuen estaldura-maila oso altua izan da, % 100 eta % 86 hurrenez hurren.

Eraitza honek adierazten du diziplina honetan bestelakoa dela emakumeen partaidetza, eta badutela leku bat. Izan ere, eraitza hau ez da propio bilatutakoa (ez dago ekintza positiborik); dirulaguntzako balorazio-irizpideak musika, dantza eta antzerkiko berberak dira.

Artista eta komisarioen mugikortasunerako dirulaguntzak 2018

Dirulaguntza eskatu dutenak			Dirulaguntza eskuratu dutenak			Estaldura-maila		
emakumeak	talde mistoak	gizonak	emakumeak	talde mistoak	gizonak	emakumeak	talde mistoak	gizonak
36 % 55,4	2 % 3	27 % 41,5	31 % 62	2 % 4	17 % 34	31 % 86,1	2 % 100	17 % 63



3. Etxepareren diagnostikoa

Programazioaren eremuan (2017), leku garrantzitsua dute Etxeparek sustatutako sortzaileentzako egonaldi artistikoak. Urtero egiten den ekimen bat da. Taulan ikus daitekeen moduan, 2017an erabat parekidea izan zen egonaldietako partaidetza (guztira 10 lagun, erdiak emakumeak eta erdiak gizonak) eta 2018an emakumeak izan ziren gehiengoa (13 lagunetik 11, hau da, % 85). Azken urteotan, beraz, **egonaldi artistikoetan emakumeen partaidetza oso handia** izan da.

ETXEPAREK SUSTATUTA		
Sortzaileentzako egonaldi artistikoak		
Egonaldia	Parte-hartzaileak	
	emakumeak	gizonak
2017	5	5
2018	11	2
GUZTIRA	16 (% 69)	7 (% 30)

Etxeparek babestutako ekintzetan emakume artisten partaidetza txikiagoa izan zen 2017an behintzat, hiru artistatik bat izan baitzen emakumezkoa.

ETXEPAREK BABESTUTA		
Programazioa	Parte-hartzaileak	
	emakumeak	gizonak
Erakusketak eta nazioarteko programazioetan parte hartzea	1 % 33,3	2 % 66,6



3.6.6. Beste kultur jarduera batzuk:



2017an sortu zen “beste kultur jarduera batzuk” nazioarteratzen laguntzeko dirulaguntza, ohiko deialdietatik kanpo geratzen ziren kultur jarduerak laguntzeko. Euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko jarduerak dira laguntzen direnak.

Dirulaguntza honen emaitza genero-ikuspegitik aztertzeko sexuaren arabera bereizitako datuak beharko genituzke, baina **datuak ez dira sexuaren arabera bereizita jasotzen eta ezinezkoa zaigu irakurketarik egitea.**

2018an 16 ekimen lagundu dira. Horien artean, 5 abesbatza, 5 dantza tradizionalari lotutako taldeak eta denetariko beste 6 jarduera.

Deialdiaren oinarriei erreparatuz gero, hauek dira nabarmentzeko alderdiak:

- **Balorazio-batzordearen osaera:** kideak izendatzerakoan **Berdintasunerako Legean ezarritakoari jarraituko zaiola adierazten da** (partaidetza orekatua). Etxepareren deialdi guztietan jasotzen da irizpide hau, **nahiz eta batzuetan ez duten orekatua izatea lortzen.**
- Balorazio-irizpideei dagokienez, baloratzen dira kultur ibilbidea, jardueraren ezaugarriak, Etxepareren helburuekin lerratze-maila (euskararen presentzia proiektuan, etab), etab. **Ez da baloratzen taldeen osaera eta emakumeen partaidetza,** esaterako.
- Dirulaguntza justifikatzeko jardueraren memoria eskatzen da (partaideen datuak sexuaren arabera bereizi gabe) eta sortutako materiala (komunikazio ez-sexista



3. Etxepareren diagnostikoa

bermatzeko eskaerarik ez). **Memorian ez dira partaideen datuak sexuaren arabera bereizita aurkezteko eskatzen** eta **ez da eskatzen sortutako materialak ez-sexista eta barneratzailea** izan behar duenik.

Programazioari dagokionez, 2017an **moda-ekitaldi** batean bi euskal diseinatzailearen partaidetza babestu zuen Etxeparek, **biak gizonezkoak**.

ETXEPAREK BABESTUTA		
Programazioa	Parte-hartzaileak	
	emakumeak	gizonak
Modaren alorreko ekitaldia	0 % 0	2 diseinatzaile % 100



3. Etxepareren diagnostikoa

3.7. Etxepareren jarduera euskararen eremuan: unibertsitate-sarea



Etxeparek orain arte **munduko unibertsitateekin lankidetzan** jardun du euskara eta euskarari lotutako ikasketak zabaltzeko eta sustatzeko. **2019tik aurrera**, ordea, eremu berri baten ardura ere hartuko du; bere gain geratuko baita **Euskara Munduan programa**, hau da, Euskal Etxeetan euskara irakasteko sarearen kudeaketa eta dirulaguntza-sistema. Orain arte HABEren esku egon da programa hau eta ez dugu eremu horretako daturik.

Horrenbestez, orain arte **unibertsitateen eremuan egindako lanaren diagnostikoa** egin dugu, hau da, irakurletza- eta katedra-sarea aztertu ditugu. Hauek dira aztertutako eremuak:

1.8.1. Irakurleen ezaugarriak

1.8.2. Irakurleen hautaketa-prozesuak

1.8.3. Irakurleen prestakuntza

1.8.4. Ikasleen datuak (unibertsitateak)

1.8.5. Ikasleen datuak (udako egonaldiak)

1.8.6. Euskal ikasketen katedrak



3. Etxepareren diagnostikoa

3.7.1. Irakurleen ezaugarriak:

Munduko 34 unibertsitatekin dauzka hitzarmenak Etxeparek eta horietan guztietan euskara eta euskal kulturari buruzko irakurletzak ditu. Guztira **30 irakasle** ari dira irakurletza-lanetan, 16 emakume eta 14 gizon. Irakurleen kopuruari begiratuta, hortaz, **kopurua parekidea** dela esan dezakegu.

IRAKURLE-KOPURUA 2018-2019			
Unibertsitateak	Irakurleak		
	emakumeak	gizonak	guztira
34	16 % 53	14 % 47	30 % 100

Irakurleen ezaugarriak edo profila aztertuz gero, ordea, **ezberdintasunak** antzeman ditugu **emakumeen eta gizonen artean**.

Emakume gehienak gazteak dira. Zehazki, **emakumeen % 81 21 eta 40 urte bitartekoak** dira eta ia erdia (% 44) 30 urtetik beherakoak. **Gizonen artean, berriz, 41-50 urte bitartekoak dira nagusi** (gizonen erdia adin tarte horretakoa da); adin-tarte horretako emakumeen ehunekoa oso txikia den bitartean (% 6). Batez besteko adinaren datu ere nabarmentzen du adinari dagokion ezberdintasun hau, 7 urteko aldea baitago emakumeen eta gizonen artean.



3. Etxepareren diagnostikoa

Irakurleen adina, sexuaren arabera:

Irakurleen adina	Emakumeak		Gizonak		GUZTIRA	
	Zenbat	%	Zenbat	%	Zenbat	%
21-30	7	44	2	16,6	9	32
31-40	6	37,5	3	25	9	32
41-50	1	6	6	50	7	25
51-60	2	12,5	1	8	3	10,7
6otik gora	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	16	100	12*	100	28	100

*Ez dugu eskuratu 2 irakurle gizonezkoen adinik, horregatik dira guztira 12 (eta ez 14).

Batezbesteko adina	Emakumeak	Gizonak	Aldea
36,6	33,7	41	7,3

Ez da soilik adin kontua, ordea. Izan ere **gizonezkoek emakumezkoek baino antzintasun handiagoa** dute. Gizonek **ibilbide luzeagoa** egiten dute irakurle gisa.

Batez bestekoa ikusita, antzintasuna pare bat urte txikiagoa dela ikus dezakegu, baina are argigarriagoa da bigarrenengo taula. Honek erakusten du **emakumeen erdiak ez daukala inolako antzintasunik eta gizonen erdia antzintasun handiena dutenen taldean** dagoela.

Batezbesteko antzintasuna	Emakumeak	Gizonak	Aldea
2,4	1,25	3,5	2,25



3. Etxepareren diagnostikoa

Irakurleen antzintasuna	Emakumeak		Gizonak		GUZTIRA	
	Zenbat	%	Zenbat	%	Zenbat	%
0	8	50	2	14	10	33
1	3	18,7	2	14	5	16,6
2	1	6	3	21	4	13
3	2	12,5	0	0	2	6,6
4tik gora	2	12,5	7	50	9	30
GUZTIRA	16	100	14	100	30	100

Etxeparek **zuzendu nahi duen joera bat** da, ordea, irakurle gisa ibilbide luzeak egitea. Zehazki, gehienez ere lau urteko iraupena duten irakurletzak proposatzen dira hitzarmenetan. **Irakurleen mugikortasuna sustatu nahi da**, irakurleak euskararekin eta euskal kulturarekin lotura estua duten pertsonak izan daitezen eta ez atzerrian egonkortuko diren pertsonak. Horri begira, unibertsitateekin egiten diren hitzarmenek denbora-muga bat zehaztu ohi dute irakurle bakoitzarentzat.

3.7.2. Irakurleen hautaketa-prozesuak:

Etxeparek egiten du hautaketa-prozesuaren lehenengo fasea. Horretarako, hautagatik ezarritako betebeharrak betetzen dituztela ziurtatu behar dute eta curriculum eta proiektu pedagogikoa (euskarako eta euskal kulturako programazioek osatua) aurkeztu. Baloraziorik onena jaso duten hiru hautagaiak aurkezten dizkio Etxeparek unibertsitateari. Bukatzeko, unibertsitatea izango da hiru hautagai horien artean irakurlea hautatuko duena, gehienetan puntuaziorik altuena lortu duena edo bere interesekin bat datorrena. Nahi izanez gero, hautagaiak elkarriketa ditzake.



3. Etxepareren diagnostikoa

2017 eta 2018 urteetan zehar **hautatutako irakurleen gehiengoa emakumeak** izan ziren, % 64 hain zuzen. Egindako 11 hautaketa-prozesuetatik 7. Hala ere, **askoz handiagoa da hautaketa-prozesuetara aurkeztu den emakume-kopurua** (% 71). Emakumeen lorpen-maila % 10,9koa da eta, gizonena, berriz, 4,5 puntu altuagoa, % 15,4 zehazki.

2017+2018	Aurkeztutako hautagaiak			Hautatutakoak		
	emakumeak	gizonak	guztira	emakumeak	gizonak	guztira
11 hautaketa-prozesu	64 % 71	26 % 29	90 % 100	7 % 64	4 % 36	11 % 100

Hautaketa-prozesuen emaitza, unibertsitatez unibertsitate:

Urtea	Unibertsitatea	Aurkeztutako hautagaiak			Hautatutakoak		
		Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2017	La Plata (Uru)	9	5	14	0	1	1
	Mosku (Errus)	4	2	6	0	1	1
	Paris Sorbona III eta IV (Fr)	7	1	8	1	0	1
	Txile (2)	4	2	6	1	0	1
	UCLA (AEB)	3	4	7	0	1	1
2018	BRNO (Txek.)	5	2	7	0	1	1
	Budapest (Hung)	3	0	3	1	0	1
	Konstanz (Ger.)	10	4	14	1	0	1
	Paris Sorbona III eta IV (Fr)	11	3	14	1	0	1
	Poznan (Pol)	2	1	3	1	0	1
	UPPA (Fr)	6	2	8	1	0	1
Guztira		64 (%71)	26 (%29)	90 (%100)	7 (%64)	4 (%36)	11



3. Etxepareren diagnostikoa

3.7.3. Egungo eta etorkizuneko irakurleen prestakuntza:

Etxepare Euskal Institutuak sustatutako ikastaroek **irakurleen prestakuntza du helburu**. **Bi ikastaro** sustatzen ditu Etxeparek, hala nola “Excellence in Basque Studies” eta “Atzerriko unibertsitate eta goi-mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza-ikastaroa”.

A) Excellence in Basque Studies:

Excellence in Basque Studies ikastaroa 2011n sortu zen. Azkeneko urteetako ikastaroak **gai jakin bat ardatz hartuta** egin dira: 2017an **genero-ikasketak** eta 2018an euskal kultura eta berrikuntza. Nabarmenezkoa da ikastaroa ardaztu duen gaietako bat berdintasuna izana.

Ikastaro honetako hizlariak errepikatuz gero, nabarmena izan da emakume hizlarien presentzia genero-ikasketetan (ohikoa da berdintasun-gaietan emakume aditu eta hizlariak nagusitzea) eta **parekidea da 2018ko hizlarien kopurua**, euskal kultura eta berrikuntzari buruzko ikastaroan. Eraitza hau halaberrezkoa izan da, halere, **ez baitago irizpiderik zehaztuta** emakume hizlarien gutxienezko partaidetza bermatzeko.

Irakasleak/hizlariak:

Urtea	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2017ko ikastaroa	10	9 (% 90)	1 (% 10)
2018ko ikastaroa	11	6 (% 55)	5 (% 45)

Ikasleei dagokienez, **emakume ikasleen kopurua gizonena baino nabarmen handiagoa** da. Ehuneko hau bat dator irakurletzetara aurkeztu diren emakumeen ehunekoarekin. Izan ere ikastaro hauetan irakurle izan nahi dutenek parte hartzen dute, oro har. Deigarria da genero-gaiak landu ziren urtean emakumeen ehunekoaren handiagoa izan zena (% 80).



3. Etxepareren diagnostikoa

Ikasleak:

Urtea	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2017ko ikastaroa	46	37 (% 80)	9 (% 20)
2018ko ikastaroa	62	42 (% 68)	20 (% 32)

B) Atzerriko unibertsitate eta goi-mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza ikastaroa:

Ikastaro hau atzerriko goi-mailako zentroetan euskara irakatsiko duten irakurleei zuzenduta dago. **EHUrekin lankidetzan** egiten da eta 56 orduko ikastaroa da. **Hizkuntzarekin nahiz kulturarekin zerikusia duten gaiak** lantzen dira, alderdi teorikotik nahiz praktikotik. **Edukietan genero-ikuspegia ere** lantzen da (Jone Miren Hernandezekin, besteak beste).

Irakasle-hizlarien kopurua parekidea da, nahiz eta ez den propio bilatua izan (**ez dago** parekidetasuna bermatzeko **irizpiderik**).

Irakasleak/hizlariak:

Urtea	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2017ko ikastaroa	15	9 (% 60)	5 (% 40)
2018ko ikastaroa	14	7 (% 50)	7 (% 50)

Ikasleen artean gehiengoa dira emakumeak (% 74-73), aurreko ikastaroan bezalatsu. Ehuneko hauek bat datoz, lehen esan bezala, irakurletzetarako hautaketa-prozesuetara aurkezten den emakume- eta gizon-kopuruarekin.



3. Etxepareren diagnostikoa

Ikasleak:

Urtea	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2017ko ikastaroa	26	19 (% 73)	7 (% 27)
2018ko ikastaroa	19	14 (% 74)	5 (% 26)

Beheko taulan laburbildu ditugu bi ikastaroen azken bi urteotako datuak:

2017+2018	Irakasleak/hizlariak			Ikasleak		
	emakumeak	gizonak	guztira	emakumeak	gizonak	guztira
2 ikastaro	21 % 58	15 % 42	36 % 100	79 % 73	29 % 27	108 % 100

3.7.4. Atzerriko ikasleen datuak (unibertsitateetan):

2016-2017 ikasturtean guztira **1.793 ikasle** izan zituzten irakurleek unibertsitateetan eta emakumeen partaidetza izugarria da. **Ikasle horien % 80 inguru emakumeak** dira eta, salbuespenak dira emakume ikasleak % 60 baino gutxiago diren unibertsitateak (Hungarian % 40-50, Chicagon % 50 eta Mexicon gizonak emakumeak baino gehiago).

Irakurleei **urteko memorian ikasleen datuak sexuaren arabera bereizita** eskatzen zaizkie, baina **ez dituzte denek betetzen**. Horregatik, aurkezten ditugun datu hauek hurbilpen bat besterik ez dira eta ez dira erabat zehatzak. Bestetik, **Etxepareren urteko memorian datuok ez dira sexuaren arabera bereizten**.



3. Etxepareren diagnostikoa

48.

3.7.5. Atzerriko ikasleen datuak (udako egonaldietan):

2018an 20 lagun etorri dira udako egonaldira. Irakurleek hautatu edo gomendatu ohi dituzte ikasleok. **Emakumeen ehunekoa oso altua** da kasu honetan ere (% 85) eta datu hau bat **dator oro har unibertsitateetan ditugun ehunekoekin**, emakumeen partaidetza % 80 ingurukoa baita.

Aurten Bai bekadunak		
emakumeak	gizonak	guztira
17 % 85	3 % 15	20 % 100

Bestelakoa da datua, ordea, **Aurten Bai saridunei** erreparatuta. **Emakume ikasleak % 80 izatetik emakume saridunak % 40 izatera** pasatzen dira; eta, alderantziz, gizon ikasleak % 20 izatetik gizon saridunak % 60 izatera.

Aurten Bai sarituak azken 4 urteotan		
emakumeak	gizonak	guztira
2 % 40	3 % 60	5 % 100

Saria eskuratzeko, euskarazko idazlan bat aurkeztu behar da eta ikasleen artean edonork parte har dezake. Sari gisa udako egonaldia doan lortuko du irabazleak. **Emakume**



3. Etxepareren diagnostikoa

ikasleak % 80 inguru badira ere, beren partaidetza ehuneko horretatik oso urrun dago 2017. urtean izan ezik. Gizon ikasleak nabarmen gutxiago dira, baina sarian parte hartzen dutenen ehunekoa nabarmen handiagoa da, baita saria eskuratzen dutenena ere.

Aurten Bai idazlan lehiaketara aurkeztutako ikasleen datuak:

Urtea	Aurkeztutako ikasleak guztira		Aurkeztutako gizonezkoak		Aurkeztutako emakumezkoak		Saritua	
	Zkia.	%	Zkia.	%	Zkia.	%	Giz.	Emak.
2015	14	100	8	57,1	6	42,8	1	
2016	9	100	4	44,4	5	55,5	1	
2017	9	100	1	11,1	8	88,8		1
2018	8	100	3	37,5	5	62,5	1	1



3. Etxepareren diagnostikoa

3.7.6. Euskal ikasketen katedrak:

Gaur egun **zortzi katedra** daude munduko unibertsitate ezberdinetan. Horietatik zazpik gizon esanguratsuen izena daramate eta **bakarra da emakume esanguratsu baten izena** daramana.

Era berean, **katedren arduradun gehienak gizonak** dira (% 63) eta, % 37 dira katedren ardura duten emakumeak. 2018an katedrotara gonbidatutako adituei erreparatuz gero, emakumeak izan dira gehiengoa, % 63 zehazki. **Emakume aditu-hizlarien presentzia handi** horretan eragina izan du Eloise Garmendia katedraren jardunak, emakume izena daraman katedrak eta emakume arduradun bat daukanak, hain zuzen. Izan ere, emakumeen memoria hartu du gaitzat eta 23 emakume hizlari gonbidatu ditu urte bakarrean. Hori horrela, Eloise Garmendia katedra alde batera utziz gero, gonbidatuen % 59 gizonak izan dira (13 guztira) eta % 41 emakumeak (9 guztira). Gizonak gehiago izan arren, **parekidetasunaren parametroetan** egongo litzateke.

Katedrak eta 2018ko datuak:

Katedraren izena	Izena		Arduraduna		Gonbidatuak	
	Emak.	Giz.	Emak.	Giz.	Emakum.	Gizonak
Bernardo Atxaga	0	1	0	1	0	2
Chillida	0	1	1	0	5	6
Eloise Garmendia	1	0	1		23	6
Jean Haristschelar	0	1	0	1	2	1
Jon Bilbao	0	1	0	1	0	0
Koldo Mitxelena	0	1	0	1	1	2
William A. Douglass	0	1	1	0	1	1
Manuel Irujo	0	1	0	1	0	1
Guztira	1	7	3 (% 37)	5 (% 63)	32 (% 63)	19



3. Etxepareren diagnostikoa

3.8. Etxepareren kanpo-komunikazioa



Komunikazio ez-sexista eta barneratzailea egiten saiatzen da Etxepare, badu **sentsibiltatea**, baina **ez dago irizpide edo jarraibiderik** landuta eta norberaren esku geratzen da, ahal duen neurrian, komunikazio ez-sexista eta barneratzailea egitea. **Trebakuntza eta tresnak falta** zaizkie modu sistematikoan eta koherentean jarduteko.

Etxeparek badu **oinarri-oinarrizko eskuliburu bat**, baina bertan logotipoaren erabilera arautzen da batez ere, eta ez du komunikazio ez-sexista eta barneratzailea egiteko jarraibiderik jasotzen. Eskuliburua berritzekoak dira eta aukera ona litzateke komunikazio ez-sexista eta barneratzailearen inguruko jarraibideak ere bertan txertatzea.

Etxepareren **webgunea** da erakundearen komunikazio-kanal nagusia. *Newsletterra* ere kanal garrantzitsua da. Edozein modutan, webgunerako lantzen diren berriak dira newsletterrak jasotzen dituenak. Gune hauek aztertuta, nabarmena da hizkera ez-sexista eta barneratzailea erabiltzeko egiten den ahalegina, baina **batzuetan gaztelaniaz maskulino generikoa** erabiltzen da, emakumeak ikusezin eginez. Bestetik, **irudiak albisteek oso baldintzatuta** daude eta euskal kulturaren plaza tradizionalki gizonena izan den neurrian eta oraindik ere euskal kulturaren ordezkari gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa den honetan, ohikoa da albisteek protagonistak gizonezkoak izatea.



3. Etxepareren diagnostikoa

52.

Praktika onak:

Webgunean emakumeei protagonismoa eta ikusgarritasuna emateko ahalegina egiten da.



Elkarrizketa: Aizpea Goenaga

Aktore eta antzerkigilearekin solastu ginen diziplina honen inguruko gogoetei buruz.

IKUSI BIDEOA

Webgunean eta gainerako kanaletan gaztelaniaz idazterakoan hizkera ez-sexista eta barneratzailea erabiltzeko formulak bilatzen dira. Nahiz eta ez den beti horrela egiten eta hizkera barneratzailea erabiltzeko formulak zehazteko beharra dagoen (barra, esaterako, ez da testuetan erabili behar, inprimakietan eta antzekoetan baizik).

Escocia, escaparate para la cultura vasca

La cultura vasca tendrá una presencia destacada en Escocia durante el año 2019 gracias a la iniciativa **#ScotlandGoesBasque**.

Mediante esta temporada cultural organizada por el **Instituto Vasco Etxepare**, artistas y creadores/as vascos/as mostrarán su talento en **más de 20 eventos** que tendrán lugar en varias ciudades escocesas. El programa girará en torno a las artes escénicas, el cine, la música, la lengua y la literatura; y habrá, a su vez, espacios para el debate y la investigación, así como para estrechar relaciones comerciales.

El programa busca **dar a conocer y prestigiar la lengua y la cultura vasca** tanto en Escocia como a nivel internacional; a la vez que **estrechar lazos** a través de la cultura, las artes y la lengua, y mediante el diálogo entre creadores de ambos territorios.



3. Etxepareren diagnostikoa

53.


Hobetzeko alderdiak:

Albisteetan gizonen protagonismoa nabarmen handiagoa da sarri.

Gaztelaniaz idazterakoan maskulino generikoa erabiltzen da batzuetan.

JUAN KRUIZ IGERABIDE GUADALAJARAKO LIBURU AZI

2018-11-23



Euskal literaturak aho den **Guadalajarako N** elkartzen dira Iberoan batera, **Juan Kruz Ige** eskutik, euskal literatu

GEHIAGO IRAKL

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAKO IRAKURLETZA LAI

2018-11-23



Etxepare Euskal Ins kultura irakatsiko di dagoen 2018-2019 ik bitarte dute denbora

GEHIAGO IRAKL

IBERIAR PENINTSULAKO HIZKUNTZA GUTXITUEN KOI

2018-11-22



Varsoviako Unibertsit ezartzeko eta haren I azaroaren 22 eta 23r mendeetako musika I Bertan, hitzaldiez gair Asier Serrano abesl

GEHIAGO IRAKL



Ayer entregaron los premios Musika Bulegoa Sariak

Los premios Musika Bulegoa Sariak 2018 se entregaron ayer en una ceremonia celebrada en el Palacio de Congresos Baluarte, Pamplona, a las 19.00 horas. Los artistas reconocidos recibieron los galardones y dedicaron unas palabras de agradecimiento, y varios artistas...





3. Etxepareren diagnostikoa

Ekitaldi, aurkezpen eta prentsaurrekoei dagokienez, honetan ere ez dago irizpiderik landuta. Halere, praktikan kontuan hartzen da **emakumeen eta gizonen oreka mantentzeko irizpidea**.



Azkenik, Etxeparek baditu 2010ean landutako **katalogo** batzuk, hainbat gairi buruzkoak besteak beste, euskal kultura, euskararen historia, bertsoaritzaz euskal sukaldaritzaz eta xx. mendeko euskal literaturari buruzkoak. Hamaika katalogo horietatik guren autoreak gizonak dira eta bi dira emakume autoreak. Bestetik, katalogoen edukietan **ez da aintzat hartu genero-ikuspegia** txertatzea eta eremu horietako bakoitzean **emakumeen lana eta emakume erreferenteak ikusaraztea**.

EUSKAL KULTURA



Euskarak eta euskal kulturak berezko tokia izan du munduan, bertako idazle, musikari, zinegile, dantzari eta oro har, artistei esker. Herri baten kultura zabaltzea herri hori ezagutzera emateko gizona da eta haiek barneatzen dute munduan zehar gure izena eta izana.



LITERATURA

Historia labur honen helburua XX. mendeko Euskal Herriko literaturaren garapenari begira esanguratsuenak izan diren gertakariak eta izenak aipatzea da. Euskal Herriko zein euskal jatorriko idazleek beren hizkuntzetan, euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa, ekoizturiko literaturari deritzogu Euskal Herriko literatura. Lehen atalean, euskarazko ekoizpena izango dugu hizpide; ondoren, gainerako hizkuntzetan egindako literaturari helduko diogu.

[GEHIAGO IRAKURRI](#)



ZINEMA

Euskal zinemaren historiara modu ezin sintetikoagoan egindako hurbilketa da honakoa, euskal zinemaren hastapenetatik gaur egun arteko euskal zinemagile nagusienetan oinarritzen dena. Ez du lan honek gaiari buruzko analisi kritiko eta zorrotza izateko xederik, ez eta ikerketa berritzailea izateko asmoik ere. Lan honen helburua abiapuntu bat izatea da, jakin gura duen irakurleak, gero, besteak beste obra antzientzuek eta zehatzagoen bidez sakonduko du gaia.

[GEHIAGO IRAKURRI](#)



3. Etxepareren diagnostikoa

3.9. Erakunde barrura begira

Guztira **12 lagunek** osatzen dute Etxepare une honetan, 9 teknikarik/langilek eta 3 zuzendarik. Lantalde txikia da, hortaz.

Diagnostikoan Etxepareren kanpo-jardueran jarri dugu arreta eta ez dugu barrura begirako diagnostiko sakonik egin. Nabarmentzeko alderdirik esanguratsuenak aipatuko ditugu jarraian.



Langileen lan-baldintzei dagokienez, hauek dira nabarmentzeko alderdi nagusiak:

- Eusko Jaurlaritzako lan-legepeko langileen dekretua aplikatzen zaie. Eusko Jaurlaritzako langileen baimen- eta bateragarritasun-aukera berdinak dituzte, hortaz.
- Hala ere, Etxepareko lanak dituen berezitasunen ondorioz, badituzte bestelako neurri gehigarri batzuk eta praktikan malgutasuna nagusitzen da.
- Bi lanaldi-mota ezberdin egin ditzakete aukeran (edo bi horien tarteko hirugarren bat): lanaldi jarraitua edo zatitua (udako konpentsazioarekin).
- **Lantalde txikia da eta lan-karga handia** izan ohi du batzuetan, estres-momentuak sortuz.
- Langileen ordezkari bat dute, gizona. Aurretik emakume bat aritu zen ordezkaritza-lanetan.

Zuzendaritzaren egunerokotasunari dagokionez, berriz, hauek dira nabarmentzeko alderdi nagusiak:

- Erabateko disponibilitatea eskatzen zaie.
- **Lan-karga handia** eta lanetik irteteko ordurik ez.



3. Etxepareren diagnostikoa

- Lanerako taldea txikia izanda eta lan-karga handia daukana, sarri zuzendaritzak bere gain hartu behar izaten du lan gehigarria, bere lan-zama handituz.
- Zuzendari Orokorren kasuan, **ordezkaritza-lanak eta eguneroko lana** aurrera atera behar izatea eskatzen zaio eta zaila da bi funtzioak bateratzea. Bestetik, ordezkaritza-lanek eta harremanek desorduetan eta bizilekutik urrun lan asko egitea eskatzen dute eta une batzuetan **oso zaila da eskakizun horiek norberaren bizitzarekin eta zaintza-ardurekin bateratzea. Kultura-aldaketa baten beharra** ikusten da, ekitaldien ordutegiak birpentsatzeko beharra eta ordezkariak parte hartu behar duten ekitaldi-kopurua mugatzeko beharra, besteak beste.

Azkenik, Etxeparek **ez du sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokolorik**. Horrenbestez, kasurik egongo balitz jarraitu beharreko prozedurak zehaztu gabe ditu eta ez dauka aholkulari konfidentzialik, hau da, erakunde barruan nahiz kanpoko eragile batekin kasuren bat gertatuko balitz, gaian trebatutako pertsona erreferentzial bat.



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

57.

GOBERNU ONA

EAEKO VII. PLANAREN LAN- ILDOAK	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
KONPROMISO POLITIKOA	Berdintasunarekiko sentsibiltate eta kontzientzia-maila handia , Zuzendaritzaren nahiz langileen aldetik. Zuzendaritzaren inplikazio-maila Planaren diseinuan.	Orain arte ez du bitartekorik izan berdintasuna lantzeko. Ez du bitarteko pertsonalik eta kanpo-laguntza kontratatzeko aurrekontua Kultura sailarekin negoziatu behar du.
BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA		Etxepare osatzen duten pertsonak ez dute orain arte inoiz berdintasunari buruzko trebakuntzarik jaso.
PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA	Etxeparek hiru Zuzendari Orokor izan ditu orain arte, guztiak emakumeak . Eta erakundearen zuzendaritza-taldean hiru lagunetik bi emakumeak dira. Dirulaguntzen balorazio-batzordeen osaerari dagokionez, oinarrietan aipatzen da kideak izendatzerakoan Berdintasunerako Legean ezarritakoari jarraituko zaiola (partaidetza orekatua).	Etxeparek ez dauka inolako erabakimenik erabakigune nagusien osaeraren inguruan (Patronatua, Zuzendaritza Kontseilua eta Zuzendari Orokorra). Organo guztietan emakumeen eta gizonen presentzia nahiko orekatua , nahiz eta ez dagoen berariazko neurririk edo bermerik etorkizunean hori horrela izan dadin. Dirulaguntzen balorazio-batzordeak osatzerakoan ez da beti lortzen parekideak izatea.
KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA		2014an Emakundek gidatutako Erakunde Publikoen Berdintasunerako Sareko partaide egin zen, baina bitarteko faltagatik ezin izan du sarean parte hartu.



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

58.

GOBERNU ONA		
	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN ETA JARDUERAN	ORO HAR: Etxepareren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko ahalegina, modu sistematikoan ez bada ere. EGITASMO ESTRATEGIKOAK: Basque Countryk lehenesten dituen lurraldeetan kultur estrategia garatzea da Etxepareren zeregina. Modu sistematikoan ez bada ere, genero-ikuspegia txertatzen ahalegintzen da Etxepare zeregin honetan. AURREKARIAK: Euskarari protagonismoa emateko dirulaguntzetan balorazio-irizpideak egokitu zituzten, ekintza positiboko aurrekaria ezarriz. Era berean, dirulaguntzetan euskararen presentzia neurtu egiten da eta urteko memorian islatu. PROGRAMAZIOAK: Nazioarteko kultur eragile eta erakundeekin programazioak lantzerakoan, Etxeparek emakumeen eta gizonen	▪ Etxepareren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko egiten den lana sistematizatzeko beharra. ▪ Diru-laguntzetan, programazioetan eta sarietan ez dira datuak sexuaren arabera bereizita jasotzen. Horrek datuak genero-ikuspegitik aztertzea zailtzen du. ▪ Kasu batzuetan sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzen dira (unibertsitateko ikasleak), baina datuok osatzeke daude. Edozein modutan, datuok ez dira genero-ikuspegiarekin aztertzen eta urteko memorian ez dira sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzen.



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

59.

	oreka aintzat hartzeko gomendioa egin izan du kasu batzuetan (sistematizatzeko). Eremu honetan elkarlan eta konplizitate egokiak sortzeko aukera .	
GOBERNU ONA		
	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
Literatura eta itzulpengintza:	▪ Itzulpenetarako dirulaguntza eskatu zutenen erdia baino gehixeago izan ziren emakumeak eta lortu zutenen % 66. Tradizionalki feminizatutako eremua da eta egoera hori islatzen da dirulaguntza deialdian. ▪ Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria: Azken urteotako saridunak kontuan hartuta, parekidea izan da, nahiz eta ez dagoen oreka hau bermatzeko neurririk. ▪ Oro har literaturaren eremuan ikusi dugun emakumeen presentzia urria (dirulaguntzetan, itzulitako lanen jatorrizko egiletzan eta babestutako programetan) aldatu egiten da Etxeparek sustatutako	▪ Itzuli diren literatur-lanen jatorrizko egile gehienak gizonak dira (% 60). ▪ Sortzaileentzako (idazleak, ilustratzaileak, editoreak eta itzultzaileak) bidaia-poltsen dirulaguntza jaso duten gehieneak gizonak izan dira. ▪ Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria: Ez dago emakumeen presentzia bermatzeko irizpiderik eta saritutako jatorrizko lanen egileak kasu guztietan gizonak izan dira. ▪ Itzulpengintzan emakumeen presentzia nabarmena den bitartean, literaturan eta idazleen artean emakume idazleen lana ezkutuago geratzen da oraindik. Dirulaguntzetan, itzulitako



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

60.

	ekimenen kasuan idazleek azoka eta jaialdietan izan duten presentziari dagokionez, zortzi ekitalditatik 6tan parte hartu baitute.	literatura-lanen jatorrizko egiletzan eta Etxeparek babestutako programetan gizonezkoak dira nagusi.
Arte eszenikoak (antzerkia eta dantza):	Mugikortasunerako dirulaguntza (2018) jaso zuten 13 dantza-konpainiatatik % 84,6 emakume-taldeak edo talde mistoak izan ziren.	Ez dira biltzen sexuaren arabera bereizitako datuak eta horrek genero-ikuspegidun irakurketak egitea galarazi digu oro har.
GOBERNU ONA		
	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
Zinea eta ikus-entzunezkoak:	Mugikortasunerako dirulaguntza eskatu eta eskuratu duten emakumeen eta gizonen kopurua parekidea izan da (ordezkari-lanak egiteko). - Etxeparek sustatutako Kimuak-en 2018ko bilduma parekidea izan da, nahiz eta ez dagoen hori bermatzeko irizpiderik ezarrita.	Ez daukagu sexuaren arabera bereizitako daturik mundu-mailan zabaldu diren eta horretarako dirulaguntza jaso duten ikus-entzunezkoen zuzendariei, gidoilariei edo ekoizleei buruz. - Zinemaren kasuan, zuzendari, gidoigile eta ekoizle gehienak gizonak dira eta Etxeparek ez du egoera horretan eragiteko gaitasunik/eskumenik. Datorkiona kudeatu behar du.



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

61.

		▪ Etxeparek babestutako ekimenetan emakumeen parte-hartzea ez da partaideen laudenera iristen.
Arte plastikoak:	▪ Diziplina honetan emakume eta gizonen partaidetza parekidea da dirulaguntza eskatzerakoan. Dirulaguntza lortu dutenei erreparatuz gero, berriz, emakumeak dira % 62 eta talde mistoak % 4. ▪ Etxeparek sustatuko egonaldi artistikoetan emakumeen partaidetza oso handia da (% 69 azken bi urteotan).	▪ Etxeparek babestutako ekintzetan emakume artisten partaidetza dirulaguntzetan eta egonaldi artistikoetan baino txikiagoa izan zen 2017an behintzat, hiru artistatik bat izan baitzen emakumezkoa.

GOBERNU ONA

INDARGUNEAK

AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

62.

Musika:	▪ Kontzertu bereziak egiteko dirulaguntzan talde mistoek gizonezkoen taldeek baino presentzia handiagoa izan dute, musika-birak egiteko dirulaguntzan ez bezala. Dirulaguntza honen diru-partida nabarmen txikiagoa da. ▪ 2018an musika-birak egiteko dirulaguntza eskatu zuten talde gehienak gizonez soilik osatutako musika-taldeak izan ziren, baita eskuratu zutenak ere (hamarretik ia sei). ▪ Gainerako dirulaguntzetan bezala, balorazio-irizpideetan ez da kontuan hartzen taldearen osaera sexuari dagokionez, emakumeen gutxieneko presentzia sustatzeko. ▪ MIN sarietako Euskarazko Album Onenaren Saria: Azken hiru urteetatik bitan gizon-taldeek jaso dute saria eta batean talde mistoak. Ez dago emakume musikagileen lana ikusarazteko eta aitortzeko irizpiderik. ▪ Musika Bulegoa Sarietako Etxepare Euskal Institutua Saria: Saria banatu den bi urteetan, gizonez osatutako musika-taldeak izan dira saridunak. ▪ Etxeparek lankidetzan antolatu dituen ekimenetan gizonez osatutako musika-taldeek izan dute tokirik gehien: jaialdi eta programazioetan % 59 eta azoka profesionaletako programazioetan % 86. ▪ Etxeparek babestutako programazioetan, norabide berean doaz emaitzak. Gizon-taldeen protagonismoa nagusitzen da; eta laurdena dira talde mistoak edo emakume-taldeak.
----------------	--



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

63.

GOBERNU ONA		
	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
Beste kultur jarduera batzuk:		▪ Datuak ez dira sexuaren arabera bereizita jasotzen eta ezinezkoa zaigu irakurketarik egitea. ▪ Dirulaguntza justifikatzeko eskatzen den memorian ez da partaideen datuak sexuaren arabera bereizita aurkezteko eskatzen eta ez da eskatzen sortutako materialak ez-sexista eta barneratzailea izan behar duenik. ▪ Etxeparek moda-ekitaldi batean bi diseinatzailek parte hartzea babestu zuen 2017 eta biak gizonaizkoak izan ziren.
Dirulaguntzetako oinarriak		▪ Oso maskulinizatutako diziplinatan, balorazio-irizpideetan ez da aintzat hartzen taldeen osaera, hau da, zer neurritan emakumeek ere parte hartzen duten taldeetan (kide-kopurua bai, ordea) eta emakumeen partaidetza.



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

64.

GOBERNU ONA		
	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
Unibertsitate-sarea:	▪ Irakurleen kopuru parekidea: 30 irakurleetatik 16 emakumeak dira eta 14 gizonak. ▪ 2017 eta 2018 urteetan zehar hautatutako irakurleen gehiengoa emakumeak izan ziren, % 64 hain zuzen (hautaketa-prozesuetara aurkezten diren gehienak (%71) emakumeak izan ziren) ▪ Irakurleen prestakuntzarako egiten diren bi ikastaroetan hizlarien artean emakume eta gizonen presentzia parekidea da, nahiz eta ez dagoen irizpiderik hori horrela izan dadin. Ikasleen artean, emakumeak dira gehiengoa (% 70 inguru). Edukietan genero-gaiak landu izan dira eta genero-ikuspegia txertatzen duen irakasle bat edo beste ere badago. ▪ Atzerriko unibertsitateetako ikaslerik gehienak emakumeak dira (% 80 inguru), baita udako egonaldietara datozenak ere (% 85	▪ Irakurleen ezaugarriak edo profila aztertuz gero, ezberdintasunak antzeman ditugu emakumeen eta gizonen artean. Emakume gehienak gazteak dira. Zehazki, emakumeen % 81 21 eta 40 urte bitartekoak dira eta ia erdia (% 44) 30 urtetik beherakoak. Gizonen artean, berriz, 41-50 urte bitartekoak dira nagusi (gizonen erdia adin tarte horretakoa da). Ez da soilik adin kontua, ordea. Izan ere gizonezkoek emakumezkoek baino antzintasun handiagoa dute. Gizonek ibilbide luzeagoa egiten dute irakurle gisa. Etxeparek zuzendu nahi duen joera bat da, ordea, irakurle gisa ibilbide luzeak egitea. ▪ Irakurleentzako prestakuntza-ikastaroetan ez da genero-ikuspegia txertatzen modu sistematikoan.



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

65.

2018an). Aurten Bai idazlan lehiaketara aurkezten direnen artean, ordea, emakumeen ehunekoa nabarmen jaisten da, baita lehiaketaren irabazleen ehunekoan ere (% 40 azken lau urteotan).

GOBERNU ONA

INDARGUNEAK

Unibertsitate-sarea:

- **Euskal ikasketen katedrak: Emakume aditu-hizlarien** presentzia handia (% 63) izan da 2018an, Eloise Garmendia katedrak gonbidatutako 23 emakumeren ondorioz. Horiek aintzat hartu gabe, emakumeen hizlarien presentzia % 41ekoa izan da, parekidetasun-parametroetan, hortaz.

Komunikazioa:

- Komunikazio ez-sexista eta barneratzailea egiten saiatzen da Etxepare, badu **sentsibiltatea**, baina **ez dago irizpide edo jarraibiderik**.
- **Webgunean emakumeei protagonismoa** ematen saiatzen dira, elkarriketen bidez-eta.

AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK

- **Euskal ikasketen katedrak:** Gaur egun **zortzi katedra** daude munduko unibertsitate ezberdinetan. Horietatik zazpik gizon esanguratsuen izena daramate eta **bakarra da emakume esanguratsu baten izena** daramana. Era berean, **katedren arduradun gehienak gizonak** dira (% 63).
- Etxeparek ez du komunikazio ez-sexista eta barneratzailea egiteko **irizpide edo jarraibiderik** landuta eta norberaren esku geratzen da. Trebakuntza eta tresnak falta zaizkio.
- **Gaztelaniaz maskulino generikora** jotzen da batzuetan, nahiz eta formula barneratzaileak bilatzen saiatu oro har.



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

66.

- Gaztelaniaz **hizkera ez-sexista eta barneratzailea** erabiltzen saiatzen dira formula ezberdinak baliatuta, nahiz eta batzuetan ez den formularik egokiena eta ez den modu sistematikoan egiten.
- **Ekitaldi, aurkezpen eta prentsaurrekoetan** emakumeen gutxieneko presentzia bermatzen saiatzen dira, nahiz eta ez dagoen horretarako irizpiderik.
- **Albisteen protagonistak** gizonak dira maiz eta hori islatzen da Etxepareren webguneko irudietan.
- 2010ean landutako **katalogoen** egile gehienak gizonak dira eta edukietan ez da genero-ikuspegia txertatzen oro har. Ez da ahalegin berezirik egin emakumeen ekarpena ikusgarri egiteko.

EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAMENDUA ERALDATZEA

LAN-ILDOA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA	▪ Lantalde konprometitua eta kohesionatua.	▪ Lantalde txikia da eta lan-karga handia du. ▪ Zuzendari Orokorrak ordezkari-lanak eta eguneroko erakundearen dinamikari lotutako buruzagitza-lanak bateratu behar ditu eta ez da zeregin erraza. Ordezkaritza-lanek desorduetan eta bizilekutik urrun lan egitea eskatzen dute eta bateragarritasun-arazoak sortzen ditu. Kultura aldaketa baten beharra (ekitaldi-kopurua mugatzea, ekitaldien ordutegiak birpentsatzea...), horrelako ardura-postuetan dauden pertsonen



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

67.

		bizitzak jasagarriak egiteko.
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK		
LAN-ILDOA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK/HOBETZEKO ALDERDIAK
KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA		Etxeparek ez du sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokolorik. Horrenbestez, ez dago prozedurarik zehaztuta erakunde barruan, erakundetik beste eragileren bati nahiz kanpoko eragileren batek erakunde barrura eragin lezakeen jazarpenari aurre egiteko; ezta gaia bideratzeko pertsona erreferentzialik ere.

Berdintasun Batzordean diagnostikoa aztertu dugu eta alderdi hauek identifikatu ditugu **indargune, ahulezia eta hobetzeko alderdi nagusi** gisa:

INDARGUNE NAGUSIAK	AHULEZIA NAGUSIAK	HOBETZEKO ALDERDI NAGUSIAK
--------------------	-------------------	----------------------------



4. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

68.

- Erakundearen berdintasunarekiko sentsibiltatea eta kontzientzia-maila, jarrera eta borondatea.
- Jadanik kontuan hartzen da genero-ikuspegia.
- Etxeparek sustatutako jardueratan neurriak ezartzeko aukera/malgutasuna: bai diru-laguntzen balorazio-irizpideetan, bai batzordeen osaeran, etab.
- Irakasle-gaiei eta interesa duten guztiei zuzendutako euskara eta euskal kulturaren inguruko trebakuntza-eskaintzaren bidez jende askorengana iristeko eta eragiteko gaitasuna.
- Gertutasuna sortzaileekin, erakundeekin eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailarekin.

- Kultur sorkuntzan erabakimenik eza
- Erabakigune nagusien osaeran erabakimenik eza
- Bitartekorik eza

- Ekintzetan, sarietan eta diru-laguntza deialdietan emakumeen partaidetza sustatzeko irizpideak lantzea, batez ere emakumeak itzalean edo bigarren mailan geratzen diren diziplinatan.
- Barne- eta kanpo-komunikaziorako irizpideak lantzea.
- Sexuaren arabera bereizita jaso beharreko datuak zehaztea, ondo identifikatzea zeintzuk diren.
- Hitzarmenetan irizpideak lantzea, emakumeen eta gizonen oreka ere sustatzeko. Nazioarteko erakundeen berdintasun-politikak ezagutzea.
- Etxepareren printzipioetan txertatzea berdintasuna.
- Berdintasunaren inguruan egiten den lana sistematizatzea.



5. Etxepareren Berdintasunerako

I. Plana 2019-2022

5.1. Sarrera

Etxepareren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planak **4 urteko iraunaldia** izango du, hain zuzen ere, **2019tik 2022ra** bitarte. Planaren indarraldia bukatzen denean, ordura arte egindakoa ebaluatu eta, beharrezko ikusten bada, Plana luzatzeko aukera egongo da prorroga bidez beste bi urtez.

Etxepareren Berdintasunerako I. Planak guztira **18 helburu eta 49 ekintza** jasotzen ditu. Helburuak lortzeko proposatzen diren neurriek izaera jarraitua edo puntuala daukate.

5.2. EAEko Berdintasunerako VII. Plana: Etxepare Euskal Institutuaren Berdintasunerako I. Planaren gidari

Etxepareren Berdintasunerako I. Planak, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana du ardatz. Berdintasunerako VII. Planaren bokazioa, hain zuzen, berdintasunaren arloan **EAEko botere publikoen eta hauen menpekoan jarduera bideratzeko ibilbide-orria** izatea da.

VII. Planean zehazten da Eusko Jaurlaritzak eta bere sailek, foru-aldundiek eta udalek esku-hartzearekin **zer helburu orokor bete behar dituzten**, elkarrekin eta koordinatuta. Emakumeen eta gizonen artean **benetako berdintasuna** lortzen laguntzea du helburu, **bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan**.

Plan hau Emakundek landu du eta Eusko Jaurlaritzak onartu, Berdintasunerako 4/2005 Legearen lege-aginduari erantzunez. 2018an jarri da indarrean, 2022ra arteko indarraldia izango du eta Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatuko da.

Planak **ardatz nagusi bat** du, **Gobernu Ona**, Berdintasunerako Legeak ezarritako aginduak jasotzen eta zabaltzen dituen, eta, administrazio publiko osoari eragiten diona. Bestetik, **esku hartzerako hiru ardatz** definitzen ditu **berdintasunaren alorrerako**.

Honako hauek dira VII. Planaren ardatzak:



5. Etxepareren Berdintasunerako

I. Plana 2019-2022

70.

GOBERNU ONA herri-administrazioen antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardueran berdintasuna txertatzeko.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA emakumeak eta neskak maila pertsonalean eta kolektiboan, sozialean eta politikoan ahaldu daitezen laguntzeko.

EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAMENDUA ERALDATZEA eskubideak bermatzeko eta gizarte-eredu jasangarriagoa bultzatzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK prebentzioa landuz eta bizirik dirauten biktimei arreta integrala emanez guztiz indarberritu arte.

Gobernu Onaren ardatza lehentasunezkoa da, erakunde publikoek eta hauen menpekoek beren jardueran eta funtzionamenduan genero-ikuspegia txertatzea dakarren neurrian. Ardatz honek jasotzen du **erakunde publikoen jarduera guztian berdintasunaren helburua txertatzeko beharra** eta, horrenbestez, egiten den guztian genero-ikuspegia txertatzeko betebeharra. Gauza gehigarriak egitea baino gehiago, **egiteko moduak aldatzean datza eta gauzak egiterakoan ikuspegi berri bat txertatzearekin**. Izan ere, ez dago politika eta programa neutrorik, eta, egiten den guztiak eragiten du, modu batera edo bestera, emakumeen eta gizonen berdintasunean. Oro har, genero-ikuspeirik gabe eta inertziak gidatuta lan egiteak gaur egun indarrean dauden emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak mantentzea edo indartzea ekarri ohi du.



5. Etxepareren Berdintasunerako

I. Plana 2019-2022

71.

Gainerako hiru ardatzek berdintasuna lortzeko egin beharreko berariazko politika eta programei egiten diete erreferentzia eta garrantzitsuak dira berdintasun erreala lortzeko xedeari dagokionez.

5.3. Etxepareren Berdintasunerako I. Plana

Esandako guztia kontuan hartuta, Etxepareren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planean **Gobernu Onak izango du lehentasun nagusia**. Jarraian Planaren ardatzak, programak eta helburuak jaso ditugu. Eta hurrengo orrietan jaso dugu helburu bakoitza egikaritzeko ekintza multzoa.

1. ARDATZA: GOBERNU ONA (14 helburu eta 41 ekintza)

PROGRAMAK	HELBURUAK
KONPROMISO POLITIKOA	GO1.Etxepareren misio, bisio eta balioetan berdintasunaren helburua txertatzea.
	GO2.Berdintasunerako Plana garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.
	GO3.Berdintasunerako plana gauzatzeko bitartekoak jartzea.
BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA	GO4.Etxepare osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezializatua eskainiz.
GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN ETA JARDUERAN	GO5.Inprimaki, erregistro eta datu-baseetan sexuaren aldagaia txertatzea, hau da, sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzea.
	GO6.Datuak genero-ikuspegitik aztertzea/irakurtzea
	GO7. Berdintasun-ikuspegia txertatzea komunikazioan
	GO8. Etxepareren jarduera nagusietan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeei eta beren lanari ikusgarritasuna emateko
KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA	GO9.Etxepareren berdintasuneko lana partekatzea eta koordinatzea barne-mailan
	GO10.Jaurkitzearen Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailarekin berdintasunaren eremuko lana koordinatzea



5. Etxepareren Berdintasunerako

I. Plana 2019-2022

72.

PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA	GO11.Emakundek sustatutako Erakunde Publikoen Berdintasunerako Sarean parte hartzea
	GO12.Nazioarteko erakunde eta eragileekin berdintasun-politikak partekatzea eta sinergiak baliatzea
	GO13.Etxepareren zuzendaritzan emakumeen gutxieneko partaidetza bermatzea
	GO14.Dirulaguntza eta sarietako epaimahaien osaera orekatua bermatzea

2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA LAGUNTZEA

PROGRAMAK	HELBURUAK
EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA	EA1.Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan

3. ARDATZA: EKONOMIA ETA GIZARTE-ANTOLAMENDUA ERALDATZEA

PROGRAMAK	HELBURUAK
ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA	EGE1. Erakundeetako zuzendarien eta arduradun nagusien jardueraren inguruko hausnarketa sustatzea, bizi-tza jasangarriak izan ditzaten eta kontziliazio erantzunkidearen eremuan eredugarri izan daitezen. EGE2. Langileen barne-araudian kontziliazio erantzunkiderako neurriak jasotzea.

4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

PROGRAMAK	HELBURUAK
KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA	EAl1.Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloa lantzea



5. Etxepareren Berdintasunerako I. Plana 2019-2022

73

GOBERNU ONA				
HELBURUAK	EKINTZAK/NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA	ADIERAZLEAK
GO1.Etxepareren misio, bisio eta balioetan berdintasunaren helburua txertatzea.				
GO2.Berdintasunerako Plana garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.				
GO3.Berdintasunerako Plana gauzatzeko bitartekoak jartzea.				
GO4.Etxepare osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea.				

Oharra: Etxepareren Berdintasunerako I. Plana bere osotasunean Excel dokumentuan dago (ikus Exceleko dokumentua).



5. Etxepareren Berdintasunerako

I. Plana 2019-2022

74.

*Adierazleei dagokienez, **ekintzaren betetze-maila neurtzeko adierazleak** ez ditugu adierazleen zutabeen jaso, etengabe errepikatzen direlako. Betetze-maila neurtzeko ekintza garatu den edo ez jasoko dugu, hau da, “proposatutako ekintza burutu da?” bai/erdizka/ez.

Ez dugu ekintza bakoitzari lotutako **aurrekonturik** aurreikusi. Izan ere, gutxi dira kanpo-gastu bat eskatzen duten ekintzak. Trebakuntza izan daiteke horietako bat. Gainontzean, aurreikusi beharreko aurrekontua Plana garatu ahal izateko beharko den laguntza teknikoarena izango litzateke, baldin eta laguntza teknikoa beharrezko ikusten bada.



5. Etxepareren Berdintasunerako I. Plana 2019-2022



6. Plana garatzeko egiturak eta baliabideak

6.1. Egiturak

Etxeparek lantalde txikia du eta lan-karga handia. Ondorioz, ez du egoki ikusten Plana garatzeko berariazko egiturak sortzea. Ezinbesteko ikusten du Plana garatzeko jada sortuta dituzten egiturez baliatzea eta egiten dituzten lanketa guztietan Planarekin lotutako ekintzen lanketa egitea zeharlerrotasunez.

Edonola ere, Plana abiatzeko eta garatzeko beharrezko jo da Planaren ardura izango duen pertsona bat izendatzea. Planaren arduraduna izango da Planari segimendua egingo diona eta ekintza ezberdinak koordinatuko dituen. **Planaren arduraduna** Zuzendaritza-taldeko kide bat izango da.

Planaren koordinazio eta segimendua **Zuzendaritza-taldeko bileretan** egingo da eta baita **lantaldeko bileretan** ere, dagokionean. Eta urtean behin Planaren segimendua eta ebaluazioari tarte eta lanketa berezia eskainiko zaio gunehauean, egindakoaren balantzea egiteko eta hurrengo urteko jardura zehazteko.

6.2. Plana garatzeko baliabideak

Etxeparek Berdintasunerako I. Plana gauzatu ahal izateko **beharrezkoak diren baliabideak** aurreikusiko ditu urtero.

- Dagozkien lanorduak esleituko dizkie Planean modu aktiboan parte hartuko duten pertsonari eta, batez ere, Planaren ardura izango duen pertsonari.
- Planaren arduradunari trebakuntza eskainiko dio, edo era horretako lanak egiteko gaitasuna duen aholkularitza-enpresa baten zerbitzuez baliatuko da.
- Etxeparek aurrekontu zehatz bat izango du urtero, Planean jasotako ekintzak garatu ahal izateko.



7. Planaren segimendua eta ebaluazioa

77.

7.1. Segimendua

Oso garrantzitsua da Planaren **etengabeko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema** bat zehaztea. Zuzendaritza-taldeak kronograman jasotako neurrien segimendu jarraitua egingo du, Planaren Excel dokumentuan bertan. Segimendu horren bidez aurreikusitako ekintzen betetze-maila ezagutuko dugu, baita lehenasunezko ekintzen inpaktua ere.

Ekintzen betetze-maila oso modu sinplean jasoko dugu (ekintzak erabat burutu diren, erdizka burutu diren edo burutzeke geratu diren).

ETXEPAREREN BERTINTASUNERAKO I. PLANA								PLANAREN SEGIMENDUA			
EKINTZAK	2019	2020	2021	2022	ARDURADUNA	LEHENTA SUN-MAILA	EKINTZA-GAKOEN INPAKTU-ADIERAZLEAK	EKINTZEN BETETZE-MAILA			
								Burututa	Erdizka	Ez	Oharrak
1. Webgune berrituko Etxepareren aurkezpenaren txertatu berdintasunaren helburua.	x					ALTUA					
2. Memoriako eta beste dokumentuetako Etxepareren aurkezpenaren txertatu berdintasunaren helburua.	x										
3. Etxepareren aurkezpenaren txertatu berdintasunaren helburua.	x	x	x	x							
1. Bertintasunerako Plana abiatu.	x										
2. Bertintasunerako Plana garatzen dela bermatu eta											

Garatzen ari garen **Planaren eragina edo inpaktua** ezagutzeko, bestetik, **ekintza gakoaren inpaktu-adierazleak** zehaztu ditugu inpaktu-adierazleen taulan (ikus Exceleko dokumentua). Taula hori urtean behin osatuko da adierazleen bilakaera ezagutzeko. Modu horretan, lantzen ari garen ekintzen arrakasta-maila ezagutu ahal izango dugu eta neurri zuzentzailerik ezarri behar dugun erabaki.

ETXEPAREREN BERTINTASUNERAKO I. PLANAREN INPAKTU-ADIERAZLEAK (SEGIMENDURAKO TAULA)									
ARDATZA	HELBURUA	EKINTZA-GAKOAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK	2018	2019	2020	2021	2022	
GOBERNU ONA	GO4	2	Trebakuntza jaso duten zuzendaritzako kideen %	0					
	GO4	3	Trebakuntza jaso duten langileen %	0					
	GO5	2	Sexu-aldagaia txertatutako inprimaki eta erregistroen %	bakarra					
	GO5	3	Sexu-aldagaia txertatutako datu-baseen %	bakarra					
	GO7	3	Ezarritako komunikazio-irizpideen betetze-maila						
	GO8	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Itzulpenegintza eta literatura.						
	GO8	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Zinea eta ikus-entzunezkoak.						
	GO8	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Arte eszenikoak.						
	GO8	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Musika.						
	GO8	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Musika.						



7. Planaren segimendua eta ebaluazioa

Bukatzeko, **garatutako ekintzen inguruko informazio xehetuagoa** jasoko da horretarako proposatzen dugun “**neurriak baloratzeko fitxa**”-ren bidez.

Urtero, urte naturalaren bukaerarekin batera, Planaren betetze-mailari eta inpaktuari dagozkion atalak beteko dira eta **Zuzendaritza-taldean nahiz langileen lantaldean partekatu eta aztertuko dira emaitzak**. Hau guztia kontuan hartuta zehaztuko da hurrengo urteko Planaren kudeaketa-plana.

7.2. Planaren ebaluazioa

Planari etengabeko segimendua egingo zaio eta urtean behin sakonago aztertuko da Planaren arrakasta-maila. Planaren indarraldia bukatzen denean, ordea, ebaluazio sakonago bat egingo da Planaren nahiz ekintzen betetze-maila eta Planaren eragina baloratzeko.





7. Planaren segimendua eta ebaluazioa

79.

Berdintasunerako Plana izaten ari den eragina neurtzeko tresna praktikoa izan nahi du **ekintza-gakoen eragina neurtzeko inpaktu-adierazleen taulak**:

ARDATZA	HELBURUA	EKINTZA-GAKOAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK	2018	2019	2020	2021	2022
GOBERNU ONA	G04	2	Trebakuntza jaso duten zuzendaritzako kideen %					
	G04	3	Trebakuntza jaso duten langileen %					
	G05	2	Sexu-aldagaia txertatutako inprimaki eta erregistroen %					
	G05	3	Sexu-aldagaia txertatutako datu-baseen %					
	G07	3	Ezarritako komunikazio-irizpideen betetze-maila					
	G08	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Itzulpengintza eta literatura.					
	G08	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Zinea eta ikus-entzunezkoak.					
	G08	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Arte eszenikoak.					
	G08	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Musika.					
	G08	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Arte plastikoak.					
	G08	2	Dirulaguntzetan emakumeen eta talde-mistoen estaldura-maila (%). Beste kultur jarduera batzuk.					



7. Planaren segimendua eta ebaluazioa

80.

ARDATZA	HELBURUA	EKINTZA-GAKOAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK	2018	2019	2020	2021	2022
GOBERNU ONA	G08	3	Partaideen sexu-orekarekiko konpromisoa jasotako hitzarmenen %					
	G08	3	Saridunen artean emakumeen % (Itzulpenak)					
	G08	4	Saridunen artean emakumeen % (Musika)					
	G08	5	Hizlarien artean emakumeen %					
	G08	6	Emakume-izendun katedren %					
	G08	7	Gonbidatutako hizlarien artean emakumeen %					
	G08	7	adierazlea zehazteke					
EMAKUME EN AHALDUN TZEA	EA1	1	Lortutako hitzarmen-kopurua					
EKONOMI A ETA GIZARTE ANTOLAM ENDUA	EGE1	2	Jokabide-kodea helarazitako sail- eta erakunde-kopurua.					



7. Planaren segimendua eta ebaluazioa

81.

NEURRIAK BALORATZEKO FITXA, martxan jartzen diren ekintzak eta ekimenak baloratzeko eta Planari segimendua egiteko:

PLANAREN JARRAIPENA: NEURRIAK BALORATZEKO ORRIA			
ARDATZA		HELBURUA	
NEURRIA		ARDURADUNA	
GARATZEKO DENBORA		AURREKONTUA	
EKINTZAREN DESKRIBAPENA: ZER ETA NOLA EGIN DA?		BALORAZIOA	